

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a / 713. zenbakia

OSOKO BILKURA/ Sei gai eta bi mozio landu zituen udalbatzarrak astelehenean

Zalantza du Udalak 18/98 sumarioa legezkoa ote den

UBANE MADERA

Zortzi puntu landu zituen udalbatzarrak; hirutan desadostasuna erakutsi zuen oposizioak. Besteak beste, aurkeztutako bi mozioen kontra bozkatu zuten: 18/98 sumarioaren gainekoa eta azken atxiloketen gainekoa. Gainerako puntuak aho batez onartu zituzten.

Aurreneko gaiari dagokionez, 18/98 sumarioaren gainekoa, horrekin lotutako bi mozio aurkeztu zituzten: bata Herri Anitza taldearen izenean; eta bestea EAJ-ren, EAren eta EBren izenean. Bigarren mozia onartu zuen udalbatzarrak, hiru alderdi horien eta Aralarren botoekin. Hala, oro har, 18/98 sumarioarekin lotuta Auzitegi Nazionalean egiten dabilen prozesuen zilegitasun eza salatu zuen Udalak mozio horrekin. Besteak beste "kolektiboen penalizazioa eta epaiketa politiko eta mediatico paraleloak" arbuiaitu zituen, giza-eskubideak defendatu, errugabetasun presuntzioa aldarrikatu, salatu sumario horretan talde armatuko kide izatearen delitua irakurketa interesatua egiten dutela eta, gatazkaren konponbidea elkarrizketaren bidetik etorriko dela nabarmendu zuen.

Oposizioak, berriz, beste salaketa bat egin zuen, Blanca Roncal sozialistaren eskutik: "Ez gaude mozioaren alde, giza-eskubideen defentsa egiteko orduan, bakarrik akusatuengan pentsatzen dutelako eta biktimen aldeko berba bat bera ere ez duelako aipatzen. Ez



EAJ, EA, EB eta Aralarren botoekin onartu zuten 18/98 sumarioaren gaineko mozia.

Inazio Lakuntza alkateak salatu zuen 18/98 sumarioak puntu beltz oso argiak dituela

du ETA gaitzesten eta ezta ETAK Euskal Herriaren askatasuna ustez defendatzeko erabiltzen duen bidea ere. Oro har, ez gaude alde metodo ez-demokratikoak erabiltzen dituztenak defendatzearekin".

Arrasateko atxiloketen gainera, berriz, EAk aurkeztutako

mozioa onartu zuen udalbatzarrak, EAJren, EAren eta Aralarren botoekin. EB abstenitu egin zen, eta oposizioak kontra bozkatu zuen. Mozioarekin, Terrorismoaren Kontrako Legearen aurkako jarrera erakutsi zuten eta errugabetasun-presuntzioaren eskubidearen aldekoa; elkartasuna ere erakutsi zien Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrietaren senideei.

Eta, bestelakoan artean, oposizioak salatu zuen zenbait batzordetan geroago eta gai gehiago lantzen dituztela gai-ordenaz kanpo, Roncalen hitzetan, "bereziki oposizio kideak falta direnean. Badi-rudi ezkutuan dabilzala". Hori ez dela bidezkoa gaineratu zuen.

Umeendako ekitaldi mordo, San Andresko jaietan

U.M.

Egitarau luzea prestatu dute aurtengo San Andresko jaierako. Gaur hasi eta astelehenera arte, umeendako jolasak, erakusketak, nagusien-dako omenaldia eta beste izango dira auzo hartan.

Gaur, egubakoitza, iluntzean hasi ko dira jaiak eta gauean jarraituko dute, Kaixo taldearen dantzaldiarekin, 22:00etatik aurrera.

ZAPATUAN, GORRITIREN ANIMALIAK

Bihar, berriz, 11:00etan buruhandiak izango dira eta 11:30etik 14:30ak arte, umeendako parkea, Bedoñaben. Goiz parteko egitaraua borobiltzeko, 12:00etatik 14:00etara Lorentxo Altube artisauren erakusketa zabalduko dute Etxaluze baserrian.

Arratsaldeari dagokionez, 17:00etan Gorritiren animaliak

izango dira Gudarien plazan; 17:00etatik 19:00etara berriro zabalduko dute haur parkea, eta bukatzeko, fanfarreak eta buruhandiak izango dira. Gauean, berriz, dantzaldia, Kaixo taldearekin.

NAGUSIAK, KIROLAK ETA JOSELU ANIAK

Domekan, zapatuko ekitaldi berberak izango dira goizean. Eta horrekin batera, 11:00etan, nagusien omenez meza esango dute eta 12:30ean 80 urtetik gorakoei luntxa emango diete Extremadura-taldearen egoitzan. 13:00etan, berriz, herri kirolak izango dira, Gudarien plazan. Arratsaldeko, Txikitxu dantza-taldearen saioa iragarri dute, 17:00etarako, eta besteak beste, 22:00etan, Joselu Anaiak talde ezagunarekin dantzaldia.

Azken egunean, berriz, bestelakoan artean, 17:00etatik 21:00etara, umeendako disko-festa izango da. Eta haur-parkea, 19:00ak arte.



IKER BARANDIARAN

Lorentxo Altuberen erakusketa zabalik izango da egunero, 12:00etatik 14:00etara.

Arrasate
INSTITUTUA

Santa Teresa 25
Tel.: 943 794447 - 943 798300

Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra
**Batxilergoetan
aurrematrikulazio
epea zabalik:**

- Natur eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologikoa
- Arte Batxilergoa

BANEKI!

BANEKI

Debagoieneko gaztetxoen saioa

Zozketa

Uztaileko finaleko talde irabazleak PORT AVENTURARA bidaia zoragarri bat irabaziko du!

Ikusleendako zozketa

Euskaltzaindiaren lehenengo idazkaria Koldo Eleizalde Breñosa izan zen. Debagoieneko zein herritakoa zen? Bidali zure erantzuna SMS bidez: GTB (hutsunea) erantzuna 7744ra.



Ikustekoa!

BANEKI Antolatzaileak:



Laguntzaileak:
Eroski Bidaiak, Bocatta, Florida eta Guridi, Ikastolen Elkartea.

Astelehen eta eguenetan
21:00etan

Aurkezlea:
Mikel Aranburu

ELKARRIZKETA

MARIA MURGOITIO/ XABIER URIZAR "GAUXORI" PRESOAREN AMA

"Ez dugu gura dirurik, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea gura dugu"

LEIRE LARDIZABAL / UBANE MADERA

Xabier Urizar *Gauxori* 20 urte dela kartzelaratu zuten. Bihar haren aldeko ekitaldia egin behar dute. *Gauxori*ren amak, Maria Murgoiatik eman digu presoaren berri. Jaenen dagoela esan digu, eta ez dakiela noiz askatuko duten.

Zer moduz duzu semea?

Hipertentsioa du... Bestela, beti alai eta sendo, sasoi txarrak pasatu arren. Adibidez, arreba bat batean hil zenean, edo hamabi urtean ikusi barik egon eta gero, aita hil zitzaionean. Urte horietan bakarrik telefonotik berba egin ahal izan zuen aitarekin, eta ez zuten ezertarako ekarri. Semeak dio ezin duela pentsatu ez dituela ikusi behar ez aita eta ez arreba etxean, berak ez duela aita gaixorik ikusi, ezta arreba hilda ere.

Eta zu, zer moduz zaude?

Bueno, sekula beraren aurrean ez dut negar apur bat ere bota. Bere sendotasuna ikusita bakarrik hunkitu egiten naiz. Nire egoera, berriz, txarra da. Alarguna naiz, 80 urte ditut eta 300 euroko pentsioa dut, eta bidaietan diru asko gastatzen da. Dena dela, ondo daramat, esperantza dudalako behin edo behin Euskal Herria libre ikusteko. Hori da niretako ilusiorik handiena.

Semea maiz ikusten duzu?

Hilean hiru bider; domeketan izaten dugu *bis a bis*. Arratsaldean izaten dugu eta berandu irten gara. Hori da txarrena. Bidaia ilunetan egin behar. Neguan oso gaizki ibiltzen gara. Udan 00:00ak inguruan iristen gara; neguan beranduago, tokatu izan zaigu bidean geratzea, elurragatik-eta.

Zela joaten zarete?

Autoan. Joateko oso konbinazio txarra dugu. Kartzela Jaen baino zortzi kilometro honantzago dago. Autobusik ez dago; trena hartuz gero, taxia ere hartu beharra dago. Beti bezperan joan behar izaten dugu. 800 kilometro dira.

Semearekin egoteko aukeraz gainera, zer da gehien faltan igartzen duzuna?

Gogorrena da 20 urtean kartzelarik kartzela ibili eta gero ikustea orain duten egoera. Sei urte egin ditu Jaenen. Su-etena izan zenean eraman zuten. Horixe izan zen, "etxera hurreratzea". Harrezkero, ia denak isolamenduan daude. Duten patioa bost metro luze eta hiru metro zabal da. Ordubete besterik ez dute egiten eta dagoen komuna erabili ere ez dute egiten; ba pentsa ezazu, komun hori garbitzen ez dutelako, egunero gehitu egiten diete zigorra. Horrez gainera semeak badaki nire adinerako mingarria dela horrenbeste bidaia egitea eta esaten dit:



LEIRE LARDIZABAL

"Euskal Herrian bada jende asko, nigandik hasita, bakea gura duena"

"Ama, ez zaitetz hainbeste bider etorri, etxera joaten naizenean, ama ondo gura dut". Eta nik esaten diot: "Hara zoazenean ez dakit zelan egongo naizen, oraintxe nago ondo eta oraintxe ikusi behar zaitut".

Zapatuan omenaldia egin behar diote *Gauxori*ri. Hala-koek zer suposatzen dute?

Pozik nago, herrian ditugun gazte zoragarriak ikusita. Lana badabilta egiten. Biondako da pozgarria, gainera haren urtebetetze bezperan da...

Zer eskatuko zenioke Ibarretxeri legegintzaldirako?

Lehenengo gogora ekarriko nuke Ardantzak ahalegin guztiak egin zituela dispertsioa lortzeko.

Bestalde, esan beharra dut EAJrengan konfiantza asko ez dudala. Ikusten badira gure premian, akaso bai, bestela ez. EAJk, birritan behintzat, saldu du Euskal Herria: Bergarako itunean eta Santoñan. Dena dela, eskatuko nioke abertzale guztiok bat egiten

"Zapaterori esango nioke bakea gura duenak oraintxe duela aukerarik onena"

ez badugu, Madrili begira ez egoteko, Madrilen ez dago-eta guretako ezer, gorrotoa besterik ez.

Etiketetik joan zenean semeari esan nion: "Ai ume, bide ederra hartu duk". Eta berak: "Bai ama, familia zoragarria dut, neska bat asko maite dudana, baina Euskal Herri lotu baten ezin naiteke bizi". Eskatuko nuen horrek berbak gogoan izan ditzala Ibarretxek, EAJk, EAK, Aralarrek eta guztiak. Zatiketarekin ez dago ezer, batu egin behar gara. Euskal Herrian bada jende asko, nigandik hasita, bakea gura duena.

Eta Zapaterori?

Bakea gura duenak oraintxe duela aukerarik onena.

Besterik esan nahi baduzu...

Presoen senideei laguntasuna kentzeko agindu diote Jaurlaritzari. Nik esan gura dut guk ez dugula gura dirurik, gura dugula presoak Euskal Herrira ekartzea; 20 urte eta 3/4ak beteta dituztenak eta gaixoak etxera bidaltzea.

Udalean dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

U.M.

Udalak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik da, maiatzaren bukaera ingurura arte. Guztira, 702.022,57 euro ditu Udalak 2005ean eskatzaile guztien artean banatzeko.

Deialdi bakarra egin du Udalak urtero ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko. Udaleko honako sail eta erakunde hauen eskumenen eremuan emango dituzte laguntzak: Euskara eta Kultura Sustapena, Gizarte Sustapena, Garapen Estrategikoa eta AUKEA.

Laguntza jaso ahal izango dute Arrasaten egoitza eta jar-

dun eremua duten pertsonak eta elkarteek edo entitateek, eta, salbuespenez, nahiz eta ez izan egoitza eta jardun eremua Arrasaten, Udalak interesgarritzat jotzen dituen ekintzak edo proiektuak garatzen dituzten beste entitate batzuek ere.

Laguntzak eskatzeko, Udalak egindako eskabide-eredua erabili beharra dago. Udaletxean nahiz bestelako udal zerbitzuetan eskura daiteke hori (Gazte Bulegoan, Emakume Txokotan, Musakolako kiroledegian edo www.arrasate-mondragon.org webgunean).

Sasoiz ibiltzeko, komeni da maiatzean aurkeztea eskaerak, udaletxean edo Musakolako kiroledegian.

Osasunaren gaineko ekitaldiak, Ekin Emakumeen eskutik

U.M.

Maiatzeko zapatuetan yoga ikastaroa egingo dute Ekin Emakumeak Elkartearen egoitzan; maiatzaren 11n dieta miragarriak aztertzeko hitzaldia egingo dute eta 3an eta 25ean, berriz, autoestimua eta autoezagutza lantzeko lantegia.

Maiatzaren 28an, Emakumearen Osasunaren Nazioarteko Eguna da. Hori dela-eta, osasunaren inguruko ekitaldiak antolatu ditu Ekin Emakumeak Elkarteak datorren hilerako.

Batetik, gure bizimoduaren erritmo azkarregiari aurre egiten laguntzeko, yoga ikastaroa antolatu dute. Maiatzaren 7an, 14an, 21ean eta 27an izango dira eskolak (zapatuak), 11:00etatik 13:00etara. Aretxabaletako Sadhana Yoga Zentroko irakasle Encarna Mendezek emango du

ikastaroa. Izena emateko, Ekin Emakumeak Elkartera jo beharra dago (Pablo Uranga 6, behe, edo hara deitu: 943 79 83 70).

DIETA MIRAGARRIEN ARRISKUA

Bestalde, maiatzaren 11n, eguztina, Leire Ezkurra dietistak dieta miragarrien gainean berba egingo du. Haien arriskuak aztertuko ditu eta, besteak beste, azalduko du argaltzeko bidean gauzak zelan egin, osasuna behar bezala zaintzeko. 18:00etatik 19:30era izango da hitzaldia.

AUTOEZAGUTZA ETA AUTOESTIMUA

Bukatzeo, besteak beste, norberaren barruan sartu eta dakiguna baino gehiago ikasi eta ezagutzen laguntzeko lantegia egingo dute, maiatzaren 23an eta maiatzaren 25ean, Arantzazu Loiziren eskutik. 18:00etan hasi eta 20:00etan bukatuko da. Izena emateko, elkartera jo beharra dago.

LABUR

Etika eta politika eta giza eskubideak hizpide Mondraguetarrak taldearen eskutik

Datorren egubakoitzean, maiatzak 6, *Etika eta Politika* hitzaldia izango da, 19:30ean Monterronen. Oinarriko komunitate kristaue-tako eta historialari sozialisten kolektiboko kide Carlos Sanchezek egingo du berba. Maiatzaren 10ean, berriz, *Giza eskubideak egungo Euskal Herrian* hitzaldia egingo du Julen Arsuagak, Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiko abokatuak. 19:30ean hasiko da.

Luzatu egin dute Monterron berritzeko proiektuen eskaintzak aurkezteko epea

Hamar egunez luzatu dute Monterron parkearen gaineko berrikuntza proiektuak aurkezteko epea. Berez, maiatzaren 4a baino lehen aurkeztu behar ziren eskaintzak; orain, berriz, maiatzaren 13ra arteko astia utzi dute, kontuan hartuta, luzapen horrek ez duela eraginik izango proiektuarendako aurreikusitako epeetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 29**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 30**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 1**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 2**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- MARTITZENA, 3**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 4**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUENA, 5**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 6**
Amezua, Santa Marina 32 ... 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza . . . 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:00 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (elebiduna) |

OHARRAK

SAN ANDRESKO JAIK
Gaurtik, egubakoitza, astelehenera arte San Andresen jaiak egingo dituzte. Buruhaundiak, umeendako puzgarriak, txokolate-jana, dantzaldiak, baserriko erreminten erakusketa, auzoko nagusienei omenaldia eta disko-festa egingo dituzte, besteak beste.

'GAUTXORI'-REN ALDE
Bihar, zapatua, *Gautxori*-ren aldeko ekimenak egingo dituzte. 19:00etan, manifestazioa egingo dute Seber Altubetik. Horren ostean, ekitaldia egingo dute Herriko Plazan.

APIRILEKO I. MUSIKALDIA
Gaur, egubakoitza, Quadra-bit perkusio laukoteak kontzertua egingo du Amaia antzokian. Bihar, zapatua, Conductus Ensemblek, San Juan Bautista elizan. Biak 20:30ean.

GAZTETXEAREN URTEURRENA
Gaztetearen urteurrenaren ekitaldien barruan, bihar, zapatua, AHTren gaineko berbaldia egingo dute, 17:30ean. Gauean, berriz, Deus taldeak kontzertua egingo du, 22:30ean. Etzi, domeka, *Eneko Haritza* film laburra-
ren emanaldia egingo dute, 18:00etan.

AEDrenAGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA
Seaskak kaleratutako euskal kantuen liburuxka salgai dute AEDn. Familia edo lagunarteko ospakizunetarako aproposa da, eta 2,6 eurotan saltzen dute.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


AHTren kontrako jardunaldiak egin zituzten

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak tren proiektu horren gaineko jardunaldiak egin zituen Arrasaten. Berbaldi eta mahai-inguru interesgarriak egin zituzten, eta Euskal Herriko eta Espainiako aditu asko etorri ziren. Horrez gain, Udalan kanpaldia egin zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lirain"



— Hiru umen ama izan arren oso liraina dago.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Juan Karlos Irizar musikariak 'Menditik itsasora' diskoa aurkeztu du Arrasate Irratian

Etengabeko langilea dela erakutsi digu beste behin ere, Juan Karlos Irizar musikari eta konpositore onatiarrak. Hogeita hirugarrenarekin nahikoa ez, eta kalean du dagoeneko hogeita laugarrena. Astean, herriko irratian izan da Irizar, *Menditik itsasora* deritzon azken lana aurkezten. Ezaugarritzat duen xamurtasunarekin igo zen 107.7ko autobusera; berarekin izandako solasaldia berriz ere entzuteko aukera izango duzue asteburuko hitzorduan.

Musika kontuez gain, besteak beste, EHGAMEko kide Josune Ortizek bikote homosexualen ezkontzen gainean emandako iritzia berreskuratuko dugu.

ASTELEHENEAN, ZUZENKORIK EZ
Astelehenean, maiatzaren 2an, Arrasate Irratiak ez du zuzeneko irratsaioirik izango. Horrek ez du esan gura isildu egingo denik irrattia, ez da gutxiagorik ere! 10:00etatik aurrera, elkarrizketa bilduma bat izango duzue entzungai, eta gainontzean musika paregabea!

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 26	3 °C
MAXIMOA Martitzena, 26	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	50,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 20	12 °C	8 °C	35,5 l/m²
Eguena, 21	15 °C	9 °C	8,9 l/m²
Egubakoitza, 22	23 °C	12 °C	2,1 l/m²
Zapatua, 23	21 °C	9 °C	2,7 l/m²
Domeka, 24	20 °C	7 °C	13,7 l/m²
Astelehena, 25	20 °C	7 °C	— l/m²
Martitzena, 26	24 °C	3 °C	— l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratua: Edorta Agirre, gastronomia aditua; Juan Karlos Irizar, musikaria; Sharon Stoner, Danbalea lehiaketako irabazlea; Josune Ortiz, EHGAMEko kidea...
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratua.
- ASTELEHENA**
10:00 Elkarrizketa bilduma.
- MARTITZENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landal)
Elkarrizketak.
Zozketak, e.a...
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Zorion agurren tartea.
Parte hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

KALEINKESTA/ Ibarretxek zeinekin osatuko dau gobiernue?



JESUS AGIRREURRETA
Erretiraue



BLANCA LARRAURI
Langillie



ANGEL INDA
Langillie



MIKEL ETXEBERRIA
Ikaslie



SONIA LAGUNA
Langillie



JOSU OLIDEN
Ikaslie

Oin arte egon dan tripartituekin. Oin, baiñe, hori ez da nahikue, eta komunistekin egin biherko leuke berba. Sozialistekin baiño gurau dot komunistekin egitten badaue.

Gai horren gainien gauza haundirik ez dakit, baiñe danekin egin biherko leuke paktue, goberno plurala lortzeko. PSOEkin egin biherko leuke, eta baitte PPkin be.

Neuk pentsetan dot onena izengo zala alderdi abertzaliek gobernue osaketie. Ez dot uste PSOEkin egin biherko leukenik, gurauko neuke Lizarra-Garaziko akordiorutz juengo bazien.

Neuk gureko neuke EHAK alderdixekin egittie, baiñe uste dot EAJk beste interes ekonomiko batzuk daukola. Madrillen ze dauen ikusitite, akaso, udazkenien barriro be elekziñuek.

Argi eta garbi dauket alderdi abertzale danakin osatu biherko leukela gobiernue, eta inddartsue izengo zan, gainera. Ez dot pentsetan PPkin edo PSOEkin egin biherko leukenik.

Lelengo eta behin, danakin egin biherko leuke berba, eta bakotzak ze ikuspuntu dauken ikusi. Eta gero, ahal bada inñor baztertu barik, akordieuk lortzen hasi. Baiñe borondatie biher da.

USTEAKUSTE

'Gara'

Lotsagarria da euskal komunikabideekin legiten dabiltzana, eta are lotsagarriagoa da jendeari axola ez izatea. Orain dela lau urte *Egin* eta *Egin Irratia* itxi zituzten, eta oraindik ez dute inolako epaiketarik egin. Horren ostean, *Ardi beltza* itxi zuten, eta haren atzetik, *Euskaldunon Egunkaria*-ri tokatu zitzaion berea.

Bere garaian *Egin*-en itxierak izan zuen zelanbaiteko erantzuna, eta *Egunkaria*-rena handiagoa izan zen. Bada zerbait!

Orain *Gara* itxi gura dute, eta hori lortzeko *Egin*-ek Gizarte-segurantzari zor zion diru kopuru handia *Gara*-ri ordainarazi gura diote. Badakite zer horrekin beste hedabide hori itxi egin beharko dutela, eta dirudienek ez dute etsiko.

Askotan esan ohi dugu herri honek irudimen eta sormen handia daukala, eta hori gauza ona da. Baina egia da, baiña ere, Kataluniako lagunek dioten moduan hemen, Euskal Herrian, modu baten pentsatu eta horrekin bat ez doazen hedabideak kontsumitzen ditugula. Begiratu, bestela, gehien saldu eta hartzen ditugun hedabideak nork egiten dituen. Horrek ere badu zeresana hemengo hedabideen biziraupenean.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZULO ERRALDOIA GAZTELUONDON Orain dela gutxi aipatu genuen errepideetako zuloetako asko, elurrak eta eguraldi txarrak eragindakoak, estaltzen zebiltzala. Zoritxarrez, astean Gazteluondon bizi diren lagun batzuek aditzera eman digute San Viatorren atzealdean itzelezko zuloa dagoela. Are gehiago, herritar horiek esan digutenaren arabera, Arrasate pasealekutik erdialderantz doazenek ez dute zuloa ikusten, gurpila barruan sartu arte. Autoak ez hondatzeko eta oinezkoak ez jausteko, zuloa estaltzeko eskatu dute.

ASTEKODATUA

702.022

**EURO DITU UDALAK
DIRULAGUNTZETARAKO**

Udalak 2005eko jardunaldirako onartu ditu aurrekontuak, eta batzorde informatzaileek egindako programetarako diru kontuak aintzat hartu ditu. Horren arabera, dirulaguntzak emateko diru partida 702.022 eurotan zehaztu du.

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Perfumeak

Bueltatxo bat ematea besterik ez dago, konturatzeko zenbat aldatu den gure herri maitea azken urteotan. Bati baino gehiagori entzungo zenion zuk zeuk ere zein dotore jarri zaigun Mondragoe zaharra, zer esanik ez Garibaiko zulozarrak estali eta inguruak txukuntzen dituztenean, Paris aizu! Herritarrok mahoizko prakak ahaztu eta markakoak erabiltzera ohitu garen neurrian, hiria bera ere pijotu egin zaigu: aparkalekuaren postmodernoa, lorategiaren loreztatua, fontanaren Trevia.

Ez dira oso urrun ba, txisontziak leihotik behera husten zireneko denborak. Estolderia zer zenik ere ez! Orain berriz edozein garaje atetan puxika umil-umil lasaitu hutsaz aurpegi txarrak jasan behar, ezin trankil utzi gizona horren trantze intimoan ere, tea tea, tea... Zantarkeriaren kontrako gurutzada, ezta Macarthismoaren egun kira-tsuenetan ere halakorik!

Baina gure herria hazi eta modernizatu ahala, sortu dira zokoak esentzia gordetzen jakin dutenak, pasabide estaliak, eskailera ilunak, subteraneo ezkutua...

Infamiaren azken gotorlekuak dira, gordinkeriaren paradisuak, arnasari eutsi eta pauso arinez zeharkatzen ditugunak, putzu susmagarriak eta abandonatutako gorotzak saihestuz. Walk on the wild side, Lou. Zenbat pintada lizun, mozkor klandestino, larru-jotze emerjentziako..., pekatuaren usain garratza

airean. Auzokoe, gogaituta, gutunak idazten dizkiete egunkarietako zuzendariari. Hitz gogorrez kezkatzen zaizkie, kalean tril eginda, partidu kontserbadoreetako zinegotzietan. Alferrik.

Fatxada errespetagarriaren ostean, hantxe ezkututzen da ugerra erruz, ez dauka bueltarik. Gainera, perfume finenak egiteko ere ez dute ba animalien gorotza erabiltzen? Hara ba, Txanel!

**"Bati baino
gehiagori entzungo
zenion zuk ere
zein dotore
jarri zaigun
Mondragoe
zaharra"**

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Karmele Etxabe

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

Alustiza eta Nagore Gipuzkoako lau t'erdiko txapelketako finalean

XABIER URTZELAI

Domekan, 12:00etan hasiko da pilota jaialdia (10 euro), eta jokoan egongo da Frontis enpresak antolatutako Gipuzkoako lau t'erdiko txapelketako finala. Finala hasi aurretik, baina, Ariznabarreta eta Antxia izango dira hirugarren eta laugarren postuagatik lehian.

Finalean izango diren bi pilotariak ikuskizun polita emateko moduan daude. Finalerdietan, Ariznabarretak ondo egin zion aurre Martin Alustizari (19-22). Baina, argi dago beste finalista, Nagore, bikain moldatzen dela lau t'erdi barruan. Irurtzungoaren azkeneko biktima Antxia izan zen (22-8); Nagorek ez zion arnasa hartzen ere utzi.

Domekako pilota jaialdia apur bat girotzeko, eta herriko pilotari gazteei laguntzeko, Frontis enpresako Errandonea eta Ariznabarreta Uarkapen izan ziren martitzenean, irakasle lanetan.

BESAIDEK BI MENDI IRTEERA

Besaide Mendi Elkarteak bi irteera antolatu ditu maiatzaren 7ko eta 8ko aste bukaerarako. Bate-tik, beteranoek maiatzaren 8an egingo dute Gipuzkoako Birako beste etapa bat. Oraingoan, Lizarrustitik Ibarrazura egingo dute. Zazpi ordu behar dira ibilaldi hori egiteko, eta antolatzaileek erabaki dute egun osoko irteera egitea. Izena emateko egunak maiatzaren 3a, 4a eta 5a izango dira, 19:30etik 20:30era. Jakin, bazkideek 8 euro ordaindu behar dituztela, eta bazkide ez direnek 10 euro.

Horrekin batera, asteburu berean Pirinioetara ere egingo dute irteera Besaidekoek, Isaba aldera. Kartxelara joango dira zapatuan (1.930 metro), eta Auñamendira domekan (2.505 metro). Izena emateko egunak maiatza-



XABIER URTZELAI

Frontiseko pilotariak martitzenean izan ziren Uarkapen, alebin mailako pilotariek.

ren 3a eta 4a izango dira, 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.

FUTBOLEAN, BETI GAZTEREN ZELAIRA

Mondrak bi astez jarraian jokatuko du etxetik kanpo, eta oraingo asteburuan arrasatearrek Lesakara joan beharko dute atzeko postuak gertu dituen Beti Gazte taldearen kontra lehiatzera. Lesakarrak ez dira larrien dabiltzanak, baina lasaitasun apur bat emango liekeen 3 puntuen bila zelairatuko dira, ondo dakite-eta jaitziera postuetan dagoen Urola bi puntura baino ez dagoela. Mondra, berriz, joan den astean Zubietan gertatutakoa ahaztu guran abiatuko da Lesaka aldera.

MUGARRI ALKESAK, ETXEKO AZKENA

Joan den asteko porrotarekin esan zien agur Mugarri Alkesa Saskibalo Taldeak Federazio Kopan aurrera egiteko aukerei. Txapelketan geratzen diren bi norgehiagoketako bat jokatuko dute zapatuan, Iturripen jokatuko duten azkena. Arrasatekoek jarraitzaileei agur esateko aukera ezin hobea izango dute, lidera den Tabirakoren kontra neuruko dituzte-eta indarrak. Pena izan da, Gabonetatik hona izan duten boladak azken jardunaldietan jarraipenik ez izatea, baina lesioekin zorteak taldeari bizkarra ematen diorean gutxi dago egiteko.

JON ANDER AMADO, IPARRALDEN

Asteburuan egingo dute Donibane Lohizuneko Kechiloa estadioan lurraldeko selekzioen arteko atletismo txapelketa, eta Jon Ander Amadok ordezkatu du Gipuzkoa 110 metroko hesi lasterketan. Arrasatekoak distantzia horretan daukan markagatik eskuratu du txapelketa horretan esku hartzeko txartela.

Besaidek bi mendi irteera antolatu ditu maiatzaren 7ko eta 8ko aste bukaerarako

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Goma2	1-0
You Know! - AT Celaya	4-4
Torpedo Mus. - Billy & The cowboys	5-4
Tomahawk - Irati Taberna	7-5
Saukelu Scream - HLB 108	7-5
Fuxion - Betraye	4-9
Iriztu Taberna - Manhattan Pippol	5-2
AC Surcos - Ekipo Aldeano	10-5
Lasagabaster - La Kuadrilla	4-1

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Saukelu Scream	26	16
2. You Know!	25	16
3. Betraye	24	16
4. AC Surcos	24	17
5. Irati Taberna	22	16
6. Iriztu Taberna	22	16
7. Lasagabaster	22	16
8. Dribling	20	16
9. AT Celaya	16	15
10. Billy & The Cowboys	14	16
11. La Kuadrilla	13	16
12. Torpedo Musakola	11	16
13. Abokajarro	11	16
14. Fuxion	11	16
15. H.L.B. 108	10	16
16. Tomahawk	10	16
17. Goma2	10	16
18. Manhattan Pippol	8	16
19. Ekipo Aldeano	5	16



ASTEBURUAN EZ DA JARDUNALDIRIK IZANGO

MAIATZAREN 7KO ETA 8KO ASTEBURUAN, BUELTA LANERA

Askorendako oraingo asteburua luzea izango denez, astelehenean jai izango dutelako, Zaldibar Txapelketako antolatzaileek jardunaldirik ez jartzea erabaki dute. Talde askok atzerapena eskatuko luketenez, hobe da jardunaldi osoa atzeratzea. Horrekin batera, jakin, Billy & The Cowboys taldekoek bi puntu gutxiago dituztela, eta fidantza galduta dutela, Joan den asteburuan epaile lanak egin behar zituzten, baina taldeko inork ez zuen ardura hori hartu.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Beti Gazte - Mondra
Preferentea. Domekan. 17:00. Lesakan.

Mondra - Zarautz
Ohor. Gaizteak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

Burumendi - Arrasate
Gazteak. Domekan. 17:00. Mutrikun.

Hernani - Arrasate
Ohorezko kadeteak. Domekan. 16:30. Hernanin.

Mondra - Luberri
Neskak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

Ostadar - Arrasate
Alebinak. Zapatuan. 10:30. Lasarte Oria.

SASKIBALDIA

Mugarri Alkesa - Tabirako Baque

Federazio Kopa. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

ESKUBALDIA

Gatz Museoa Jakion - Aitxuri

Gazteak Kopa. Zapatuan. 11:30. Iturripen.

Pneumax - Gatz Museoa Jakion

Gazteak Kopa. Astelehenean. 12:30. Elgoibar.

Arrasate - Bera Bera

Kopa neskek. Astelehenean. 11:30. Iturripen.

Arrasate - Usurbil

Kadeteak Kopa. Astelehenean. 10:00. Iturripen.




URDONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Ibarreko txikienek abesteko duten trebetasuna erakutsiko dute jendaurrean.

ARIZMENDI

MUSIKA/ Arizmendiren XVIII. Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketak

Ibarreko gaztetxoek abestu eta ondo pasatzeko ekimena

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, XVIII. Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketak egingo dituzte. Aurtun, Amaia Udal Antzokian beharrean, Uarkape pilotalekuan egingo dituzte, lagun gehiago sar daitezten. Zazpi taldek esku hartuko dute, eta 17:00etan izango da.

Dagoeneko urteroko hitzordu bilakatu dira Arizmendi ikastolak antolatutako abesbatzen topaketak. Aurtengo edizioak bi berrikuntza nagusi izango ditu: bate-tik, ekitaldia Amaia Udal Antzokitik Uarkape pilotalekura eramango dutela; eta bestetik, talde gonbidatu sorpresa batek ere esku hartuko duela. Antolatzailerak Rakel Murgiondok azaldu-takoaren arabera, Amaia Udal Antzokian ez ziren guztiak sartzen. "Guraso eta lagun asko joaten dira abesbatzen kontzertuak ikustera, eta iaz lagun asko kanpoan gelditu ziren, antzokia bete-

ta zegoelako. Ez dugu berriro halakorik gertatzea gura, eta Uarkapen 1.500 lagun sar daitezke".

Talde gonbidatuari dagokionez, Arizmendi ikastolako hainbat irakasle eta langilek talde bat osatu dute ekitaldi horretan espreski abesteko. "Batzuek ez dute aurretik inoiz abestu, baina oso ondo moldatu dira", azpimarratu zuen Murgiondok.

200 UME ETA GAZTETXO ABESTEN

Honako taldeek esku hartuko dute topaketetan: Haur Hezkuntzan, Arizmendiko Olarte gunek; Lehen Hezkuntzan, San Viator Txiki gunek, Aramaioko San Martin Herri Eskolak, Arizmendiko Almen gunek eta Oñatiko Txantxiku ikastolak, eta Bigarren Hezkuntzan, Berrizko institutoak eta Arizmendiko Almenek, San Viatorrek eta Ferixalekuko gunetako ikasleek osatutako taldeek. Guztira, 200 ume eta gaztetxo baino gehiagok abestuko dute.

Honako piezak abestuko dituzte, besteak beste: *Muxu*

Truk, Guk euskaraz, Airez aire, Gailurrez gailur, Mantxa pio, Uso txuria, Xarmengarria, Dubadap da, Umerez eta Kantari kantari-pozik etorri gerade.

BERRIZKO TALDE BAT ETA LANGILEAK

Topaketetan abestuko duten talde guztiak ibarrekoak dira, bat ezik. Berrizko institutuko taldea, hain zuzen ere. Bigarren aldia da Arrasatera abestera datorrena, eta zuzendaria, Gurutze Uribarren, arrasatearra da. Uribarren oso ezaguna da herriko ikasle eta musika zaleen artean.

INDIAKO UMEZURTZ-ETXE BATEN ALDE

Aurtun, iaz moduan, 3 euro kobratuko dituzte, eta jasotako dirua Harreman gobernuaz kanpoko erakundeari emango diote. Diru hori Bombayko (India) umezurtz-etxe batera bideratuko dute. Jasotakoarekin urtebeterako jana izango dute umezurtz-etxean. Bihar, zapatua, jarriko dituzte sarrerak salgai Uarkapen, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik aurrera.

II. Zeramikagileen Topaketak iazkoak baino aberatsagoak

I.B.

Iaz *Ceramikarte* webguneak Telleria Baserriko Jaia izeneko jardunaldiak antolatu zituen. Aurtun, ekimena errepikatu eta handitu egin dute. Atzotik, eguena, hasita maiatzaren 8ra arte egingo dute.

Telleria Baserriko Jaia 05 edo II. Zeramikagileen Topaketa moduan bataiatu dituzten jardunaldi horiek Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin egingo dituzte. Hain zuzen ere, topaketei ibarreko ikuspegia eman gura diote antolatzaileek.

Ceramikarte.com webgunea da horren antolatzailea, eta aurtun erakusketaren zabalkunde geografikoaz gain, ekintza berriak antolatu dituzte: era-

kusketa eta berbaldiez gain, zeramikaren gaineko ikus-entzunezkoak emango dituzte, besteak beste.

ERAKUSKETAK ETA DOKUMENTALAK

Atzo, eguena, jarri zituzten abian aipatutako hiru herrietako erakusketak. Arrasaten bi daude ikusgai: batetik, Gasteizko Reyes Guillen Berriobeñak *Eraikuntzak-Construcciones* lana jarri du ikusgai Monterron jauregian. Eta bestetik, Gaztelako Ruben Navarro Valverdekin hainbat lan jarri ditu Harresi aretoan. Navarreh lanak atzerriko zenbait erakusketatan banatuta daude, eta izen handia dauka.

Horrez gain, bihar, zapatua, zeramikaren gaineko dokumentalak ikusi ahal izango dira Monterronen.



*CERAMIKARTE

Aurtun, erakusketaz gain, zeramikaren gaineko dokumentalak emango dituzte.

LABUR

Arrasateko Musika Eskolako Bandak Madrilera txangoa egingo du asteburuan

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Bandak Madrilera txangoa egingo du. Iaz Salobrara egindako txangoak izandako arrakasta ikusita, aurtun Madril aldera joatea erabaki dute. Zapatu goizean Segovia bisitatuko dute, eta arratsaldean kontzertua egingo dute Griñon herriko antzokian (Madril). Euskal abesti mordoa joko dituzte, eta horien artean hainbat Arrasatekoak (Errementari dantza, San Juan, Gora Arrasate...).

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

BOTEPRONTUEN

Arantzazu Ugarte

SUMINISTROS UGARTE

XABIER URTZELAI

Enpresa-zuzendaritza ikasitue, Arantzazuk hainbat urte egin euen kanpuen ikesten, eta baitte lanien be. Badie zazpi urte etxeke negoziuen dabilela. 1970ien sortu euen aittek Suministros Ugarte, Zarugalden. Handik Arrasate Pasealekura, eta San Andresera oin, lehen Lanako fabrikie euen tokire.

Oin, kalie baiño gertuau dauketzue Bedoña.

Bai, izen leike. Azken baten, almazen haundixaeu biher geuen, eta kamioiekin ibiltteko leku hobia da hau. Bezeruendako askoz be komoduau da, eta baitte geuretako be.

Industri hornidurakin egitten dozue lan, eta hemen enpresarik ez da falta.

Ez. Neurri haundi baten, MCC grupuendako, ULMAndako eta ARCERLOR endako egitten dou lan. Horreik die enpresa haundixenak, baiñe taillerrendako eta konstruktorendako be egitten dou lan.

Eta txapuzak egittie gustetan jakon jentie be etorriko da.


Bai, etorten die. Akaso, kalien ginguzenien gehixau etorten zien, dendie gertuau euelako. Baiñe tornillo bille, jeneradore bille, soldietako makiñak...

Industri hornidurez gain, berrittasunen bat be badauketzue.

Ointxe atara dou katalogo barri bat, norbera babesteko ekipamenduekin osatutakue, jentiek EPI moduen ezaguketan dau. Eta, geu izen gara lelenak hori ataraten.

Interneten be badau zeuon barri.

Gaur egun biherrezkue da-eta. www.suministrosugarte.com helbidien, bestiek beste, produktuen gaineko kataloguek eta konsultak egittie aukerie dauko jentiek. Eta laister egongo da eskaerak webgunien bittartez egittie aukerie. Lehen faxakin egitten zan lana korreo elektronikuekin egitten dou oin, eta hurrengo pausue izengo da klientiek webgunien bittartez egittie eskaerak.



"Ointxe atara dou katalogo barri bat, norbera babesteko ekipamenduekin osatutakue"

ttie eskaerak.

Zer da gehixen saltzen dozue-na?

Ez da erraxa esaten, mantenimientoko suministruiek, eta festoko zilindro eta errakoriek.

Produktuek saltzie, ala almazena ordenaute eukittie.

Zerek emuten dau lan haundixena?

Seguruenik almazena ordenaute eukittiek.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Produktuek ondo ezaguketie. Azken baten, etxe asko dauz produkto bardiñe egitten dauenak, eta zein aukeratu jakin biher da. Horrekin batera, klientiek zer gure dauen

jakittie be inportantie da.

Zerek emuten dotzu begixetan min?

Azken baten, oin arte gizezkuena izen dan sektore baten egitten dou lan, eta hamen hiru neska gabitz lanien. Batzuetan, igarri egitten dou hori.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Umien kotxiekin ibiltteko biher dan moduko azerak.

Eta ze dauko ona?

Danetik daukola esango neuke.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Diarios de una motocicleta / Diario de un skin nabil leituden / Alanis Morissette.

NIREBIDAIAHURA/ Maite eta Mainer

Venezuelara / 2005eko urtarriletik otsailera arte

Joan den astean aurreratu genizuen Maitek eta Mainerrek asteburuetan egindako irteeretan ez zutela zorte handirik izan, hasieran ez, behintzat: "Lehenengo asteburuetako batean, Supi-ra joatea erabaki genuen. Azkeneko momentuan dena prestatu, autobusa hartu, eta hantxe joan ginen. Venezuelan, baina, lurralde batetik bestera igarotzeko polizia kontrolak izaten dira, ez dute gura kolonbiarrik. Eta halako kontrol batean, kolonbiarrik ez, eta guri adarra jotzeko asmoz etorri ziren. Autobusetik jaitziazki eta dokumentazioa eskatu ziguten. Bagenekien pasaportearen fotokopia nahikoa zela, pasaportearekin ibiltzea ez delako gomendagarria, baina poliziendako ez zen nahikoa. Autobusak aurrera egin zuen, eta han geratu ginen gu, poliziek eztabaidatzen. Seguru, diruaren zain zeudela, baina guri burutik pasatu ere ez zitzaigun egin. Azkenean, etxera bueltatu, pasaportea hartu eta beste autobus bat hartu behar. Kontrolera itzultzera koan ere hantxe jarraitzen zuten, gogotik egin zuten gure kontura barre".



"Kontrolako poliziek gogotik egin zuten barre gure kontura"

Kostata, baina iritsi ziren Karibera: "Gau bakarra igaro eta bi ordaindu behar izan genituen, eta ikustekoa zen etxea nola zegoen. Gure etxean labezomorro galantak zeuden, baina etxe hartakoak...". Egun bakarra egin zuten Supi-n, baina Karibera egin zuten hurrengo bidaia ez zen askoz hobea izan: "Tucacas-era joan ginen, paraje ederra da, eta aparteko giroa zegoen. Gazte batzuk ezagutu genituen, eta euren etxera gonbidatuko gintuztela esan; igerilekua eta guzti omen zeukaten. Eurria hasi zuen, eta azkenean, lagun haiek gure ostatura ekartzeko baimena eskatu behar izan genion ugarizabari; ez zigun horrelakorik onartu, eta hantxe joan ziren. Hamabi orduz bota zuen eurria, geratu gabe. Etxera itzuli ginen, eta telebistan ikusi genuen gu izan ginen lekuan uholdeak zirela. Jendea helikopteroz ateratzen zuten etxeetatik. Eskerrak Maracaibora itzuli ginen".

XABIER URTZELAI



Supi-ko hondartzan zeuden gartzetxoei ateratako erretratua.

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

JOSE LUIS ABUIN

kiromasajista - naturopata - akupuntorea



Lokal berria :

Musakolako Udal Kirolegia - ARRASATE - 943 77 16 77

San Josepe 10 behe D - ARRASATE - 943 77 01 33

20 urte baino gehiago zuen artean

Monte
tabernaMaalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta





ARRASATEKO INSTITUTUKOAK ARTE EDERREN MUSEOAN

Arrasate Institutuko Arte Batxilergoko ikasleak Bilboko Arte Ederren Museoan izan berri dira, eta museoaren aurrealdean ateratako argazkia da ondoan daukazuena. Bilboko museoaren ezagutzeaz gainera, museoak bisitatzeko ohitura piztea zen bidaia horren helburuetako bat. Dena dela, aurreikustekoa da artearen gainean batxilergoa egitea aukeratu duenak derrigor izan behar duela gustuko museo batetik bestera ibiltzea. Bilbon, John Davies eskultorearen artelanak ikusi eta Euskal Herriko arte modernoa aztertu ahal izan zuten.



IKUSPUNTU BERRI BATEN BILA

Joan den apirilaren 13an, 14an eta 15ean Arizmendi Ikastolako Eraikuntza Zikloko ikasleak Bartzelonako Construmat izeneko erakusketan izan ziren. Besteak beste, 30 metro koadroko etxebizitzak, kristalez egindako etxebizitza bat, bioeraikuntzarako materialak eta beste hainbat berritasun ikusi ahal izan zituzten. Euren ikasketen gainean ikuspuntu berri bat.



ARRASATEKO JIU JITSU TALDEKOAK HASI DIRA LEHIAN

Joan den astean izan ziren Arrasateko Jiu Jitsu taldekoak lehenengoz txapelketa batean, Zumarragan. Baina hainbat kategoriatan lehiakiderik ez zuten, hainbat partaide txapelketan esku hartzeko gogoarekin geratu zen, eta gainontzekoen borroka ikustearekin konformatu behar izan zuten. Argazkian dagoen *Ketxi*-k ordezkatu zuen Arrasate, eta baita ondo egin ere. Arrasatekoa bigarren sailkatu zen, eta kontuan hartuta Katalunian, Frantziako, Errioxako eta Aragoiko borrokalariak izan zirela, ez da marka txarra. Jiu Jitsu borroka-arteak ez da oso ezaguna, baina Arrasateko badu bere taldea, eta hamar lagun dabilta bertan.

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ZAHARRENETXETIK

Bide hezkuntzaren gainean aholkuak jasotzen dabilta erretiratuak

IKER BARANDIARAN


Herriko erretiratuak buru-belarri dabilta bide hezkuntzaren gainean aholkuak jasotzen. Udaltzaingoak hartu zuen ardura hori, eta herriko lau elkarteetan berbaldi-ikastarotxoak ematen dabilta. Oso baliagarria ei da berbaldietan azalduakoa.

Gogoz hartu dute erretiratuen elkarteetako batzarrek Udaltzaingoak abiarazitako ekimena. Hain zuzen ere, Udaltzaingoak trafikoaren ardura du herrian, eta konturatu ziren oinezkoen istripu gehienetan 10 urte baino gutxiago dituzten umeak eta 65 urtetik gorako lagunak izaten direla biktimak.

Arrisku hori saihesteko asmatan, erabaki zuten gizarteko bi multzo garrantzitsu horiei berbaldi bereziak ematea. Hala eginen hasi dira eskoletan, eta baita erretiratuen elkarteetan ere.

ADIBIDE UGARI EMATEN DIZKIETE

Lehenik eta behin, bideo batzuen bitartez, egunerokotasunean gertatzen diren hainbat egoera ikusteko aukera izan dute. Horren ostean, Zigor udaltzainak ikusi dutenaren gaineko galderak egin dizkie. Modu arinean egiten dute guztia, umore kutsuarekin, eta Zigorrek hainbat adibide erabiltzen ditu. Parte-hartzea ere ona da. Jakina da erretiratuek badaikitela euren burua zaintzea garrantzitsua dela.



Erretiratuek oso harrera ona egin diete berbaldiei.

Erretiratuen kezka eta ondorioak jaso ostean, udaltzainak hainbat argibide eman ditu. Adibidez, gogorarazten die zebra-bidea zapaldu aurretik ezinbestekoa dela errepideko bi aldeetara begiratzea, batez ere ezkerreko aldera. Are gehiago, honako hau azpimarratu zuen: "Oinezkoek zebra-bidean lehentasuna duzen arren, hobe da ziur egon arte errepidea ez zapaltzea. Eta auto gidariek gelditzeko arrastorik egiten ez badute, keinu bat egin iezaiozue geldi daitezen".

Semaforoa berde dagoenean, oinezkoendako preferentzia izan

arren, kontu handia izan dezatela eskatu zien udaltzainak, auto gidaria oharkabetuz gero, kalte-tua oinezkoa izango delako.

SEMAFOROETAN, ARG!

Semaforoekin jarraituta, gogoratu zuen argi berdea aldatzera edo kentzera doala ikusiz gero, hobe dela oinezkoak espaloian zain gelditzea. Arrazoia da berde jartzen den momentuan autoak berehala irten daitezkeela. "Are gehiago", azpimarratu zuen udaltzainak, "kontuan hartu behar da adinekoek beti ez dutela mugikortasun handia izaten".

LABUR

Toki Argi elkartearen sukaldaritza praktikoaren gaineko ikastaroa egin dute

Santa Marinako Toki Argi elkartearen sukaldaritza gaineko ikastaro bitxia egin berri dute. Martitzenean hasi ziren eta gaur, egubakoitza, bukatu dute. Besteak beste, honako gaiak irakatsi dizkiete: dieta orekatuak, gaixotasunei aurre egiteko dietak, egoera berezietan zer jan... Are gehiago, jaki horiek prestatzen irakatsi die Aitzol Altzibar sukaldariak.

Datorren egubakoitzean, Parisko bidaiaren inguruko batzarra egingo dute Toki Argin

Maiatzaren 12tik 19ra bitartean Toki Argi erretiratuen elkarteak lagunek Pariserara bidaiara egingo dute. Bi autobus eramango dituzte hara, eta aditzera eman dute oraindik hainbat eserleku libre dituztela. Hortaz, Arrasateko edozein erretiratuk dauka izena emateko aukera.

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 6an, batzarra egingo dute, 17:00etan, bidaiaren nondik norakoak azaltzeko: atzerrian mediku-laguntza jasotzeko txartela, Parisko egonaldia...

Maiatzaren 25ean, Abaroa elkarteak lagunek Bizkaian egunpasa egingo dute

Eguraldi onarekin bat, erretiratuek, beste askok moduan, gero eta txango gehiago egiten dituzte. Esaterako, maiatzaren 25ean, Abaroa elkarteak lagunek Bizkaian egunpasa egingo dute. Lagaiko (Urdaibai) hondartzan hamarretakoa egingo dute. Horren ostean, Mungian buelta bat emateko aukera izango dute; eta handik, Erandiora joko dute, Montenegro jatetxean bazkaltzeko. Handik Bilbora joko dute. Eguaztenean, maiatzaren 5ean, eman beharko da izena, eta txartelak hilaren 23an banatuko dituzte.

Erretiratu batzuk Lourdesetik etorri bezain laster, beste batzuk, Calpera (Alicante)

Toki Argi elkarteak ez dute atsedetik hartzeko asmorik. Pariserara bidaiara prestatu bitartean, bihar, zapatua, Lourdesera joango dira lau autobusetan. Asteburupasa egingo dute han, eta san-tutegia bisitatuko dute, jakina.

Abaroakoak Calpera (Alicante) joateko zain daude. Maiatzaren 12an irtengo dira Arrasateetik eta hamar egun egingo dituzte han. Horretarako, interesatuek eguaztena, maiatzaren 4a, aurretik jo beharko dute bulegora ordaintzera eta txartela hartzera.

BEDOÑABE HAURRESKOLA

(0-2 urte bitarteko umeendako)


2005-2006 ikasturteko matrikulazio epea zabalik

Noiz: maiatzaren 3tik 18ra

Non: Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfonso VIII kalea, San Andres auzoa)

Tel: 943 79 76 86

Haurreskolak



kelnara
banda zabala

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net:** bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...
- **Hezkuntza:** matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia:** ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

Seinalea jaso dezaketen auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta:** Aozaratz, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza:** Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate:** Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga.**

EZETZASMATU



Zein da argazkian ikusten duzuen fabrika hori?
Arrastoa: gaur egun, fabrika hori Kataideko industriagunean dago.

ARTXIBOA

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Maria Fontaneda galletak
800g-ko kaxa+200g doan

1,44€ 240 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA ALTUNA arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria!
Galderen erantzun zuzena:
60-70eko hamarkadak.


ARRASATEKO HISTORIA

Unión Cerrajeraren sorrera prozesua

'ARRASATE, 1936...' OKTUBRE TALDEA

1869an Zaldibarko burdinola, Olazarra deitua, Jose Maria Resusta, *Maixortxo*-ren zuzendaritzapean zegoen; zuzendari hark sarrailagintza moderno bat lortu nahi zuen, garaiko ideia liberal berriei jarraiki. Xede horrekin Oñatiko baserri askoren jabe ziren Vergarajaureguitarrekin harremanetan jarri zen, horiek izango baitziren kapital jartzailerik garrantzitsuenak; eta luzera gabe bi familietako ahaideak elkartuko zitzaizkien, baita herriko eta Oñatiko beste zenbait jabe ere, zenbait profesional liberalekin batera. Monterroneko Konteari burdinola hori erosten diote eta 1869ko abenduaren 4an "Vergarajauregui, Resusta y Cía." elkarre komandatariora sortu zen. Elkarre horrek polito-polito udalerriko beste zenbait tailer bereganatu zituen (Txakolineneko tailerra 1887an) eta baita Leintz bailarako beste zenbait tailer ere (...). 1894rako 550 langile zituen, 22.000 metro koadroko azalera batean".

Enpresa errentagarria zen, eta Estatuko merkatuan abantailazko lekua hartu zuen, eskabidearen



Unión Cerrajera lantegiaren antzinako argazki bat; 1910ean zelako itxura zuen erakusten du.

'ARRASATE 1936, BELAUNALDI ETENA' LIBURUA

gorakadak beste fabrika bat sortzeko asmoak emarazi zituen; Bergaran eraiki zen (1913an), turbina hidraulikoei eragiteko ur gehiago dagoelako han, baina hazkunde horrek enpresaren kapital sozialaren hazkundera eskatu zuen, eta horren ondorioz enpresak elkar-

Bergarako pilota partidu batean jaiotzen Unión Cerrajera, beste bi enpresa elkartu eta gero

te anonimoaren egitura hartu zuen; une horretan sartu zen, hain zuzen, Toribio Agirre jauna administrazio batzordean.

Karlisten eta liberalen arteko liskarren ondorioz, bai herrikoak bai lan alorrekoak, enpresako zenbait enkargatu gaitu eta industrial

txiki joan ziren Villafranca de Gaietaneko kontearengana (Inigo Gaietan de Ayalarengana), enpresatik apartatzeko laguntza ekonomiko bila. Horrela sortu zen Zigorrolako burdinolaren instalazioetan "Cerrajera Guipuzcoana" enpresa, 1905ean 100 langileko plantila zuena. Liberalek eta karlistek industriaren alorrean dute hemendik aurrera elkarren arteko liskarra (...). Dena dela, ideologiazko desberdintasun eta urrutikotasun guztien gainetik errealismo ekonomikoa gailendu zen, eta Bergarako frontoian jokatzeko ari zen pilota partidu batean Cándido Gaietan de Ayala, "Guipuzkoana"ko lehendakari jaunak bi elkarteak batzeko proposatu zion Jose Maria Resusta jaunari; bateratze hori 1906an gertatu zen, eta horrela jaiotzen 1906ko ekainaren 5ean Unión Cerrajera.

Esan liteke enpresa hori zela Arrasateko herriaren bizitza sozio-ekonomiko eta laboralaren oinarria (arrasatearrei ematen zitzaizkien "cerrajeros" gaitzizenak berak aski adierazten du). Enpresako zuzendariak Udaleko zinegotzi ere izan ziren; Toribio Agirre epaile, alkate eta zinegotzi izatera iritsi zen... Horrela, enpresak herriaren gainean zuen kontrola ia erabatekoa izan zen".

SAN ANDRESKO JAIAK

Apirilak 29,30
Maiatzak 1 eta 2

2005



Jabier
Gozokidenda

Bañez doktorea, 6
Tel.: 943 79 49 82

TABERNA

J/J

Bñez D.K.,6
(San Andres auzoa)
943 79 74 12

Imagen
Ile-apaindegi mistoa

Solariuma
manikura
makillajea

Banez Doktorea 10
ARRASATE
Tel 943 79 29 18

Urretxu
taberna

Ondo
pasa jaietan

Maisu Guridi, 1
Tel.: 943 79 15 93
ARRASATE

Muruamendiaraz
GOZOTEGIA

Leintzibar, 4
Tel.: 943 79 23 19

Lizarralde
kirolak

Bizikleten salmenta
eta konponketa

Oñati
Olakua, 16.
Tel.: 943 78 29 86

Arrasate
Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 79 91 47

kurruxko

Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa

Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

TOKI EDER
KAFE TABERNA

pintxoak
aukeran

musika ona

Bañez doktorea 11
(San Andres auzoa)
Tel.: 943 79 31 45

izaskun
ARRAINDEGIA

Araba pasealekua, 3
Super BM ondoan
ARRASATE
Tel.: 943 79 19 86

IRU

Zangitu
MARGOAK
ALFONBRAK

Araba Etorbidea, 3
Eskatu pabeloia
Tel. 943 79 11 71

MEHER

GIZON, EMAKUME ETA
HAURRENTZAKO JANTZIDENDA

Bañez doktorea, 1
Tel.: 943 79 63 85

Aramaio
okindegia

Croissante eta opil
egin berriak.

Jai zoriontsuak
eta on egin!

Maisu Guridi, 3
Tel.: 943 77 21 21

Ritelu

Foruen plaza 3
Tel.: 943 79 29 99

OINETAKO KONPONKETAK
RAOS

Mota guztietako
giltzen kopiak

Bañez Doktorea, 6 behea
Tel.: 943 79 74 87
San Andres

Rita
FRUITADENDA
ETA URDAITEGIA

Errebuelta, 10
Tel.: 677 81 23 82

Egitaraua:

Apirilak 29

18:30 Etxafuegoak eta buruhandiak.
22:00 Gudarien plazan "Kaixo" taldearekin dantzaldia.

Apirilak 30

10:00 Diana Bilboko gaiteroekin eta etxafuegoak
11:00 Buruhandiak.
11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea puzgarriekin.
12:00 "Samasiku" fanfarrearekin kalejira.
12:00/14:00 "Etxaluze" baserrian Lorenzo Altube artisauren erakusketa zabalik.
17:00 Gudarien plazan "Gorriti eta bere abereak".
17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea puzgarriekin.
17:30 "Samasiku" fanfarrearekin kalejira.
18:00 Buruhandiak eta bonba japoniarrak.
22:00 Gudarien plazan "Kaixo" taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 1

10:00 Diana Bilboko gaiteroekin eta etxafuegoak
11:00 Buruhandiak eta gure nagusien omenez meza.
11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea puzgarriekin.
12:00 "Samasiku" fanfarrearekin kalejira.
12:00/14:00 "Etxaluze" baserrian Lorenzo Altube artisauren erakusketa zabalik.
12:30 Luntxa 80 urtetik gorakoentzat Extremadurako kultura-egoitzan.
13:00 Gudarien plazan herri kirolak.
17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea puzgarriekin.

17:00 Txikitxu dantza taldearekin kalejira eta emanaldia Gudarien plazan.

17:30 "Samasiku" fanfarrearekin kalejira.

18:00 Kurtze Txiki plazan haurrentako txokolatada eta buruhandiak.

22:00 Gudarien plazan "Joselu anaiak" taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 2

10:00 Diana Bilboko gaiteroekin eta etxafuegoak
11:00 Buruhandiak.
11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea puzgarriekin.
12:00 "Samasiku" fanfarrearekin kalejira.
12:00/14:00 "Etxaluze" baserrian Lorenzo Altube artisauren erakusketa zabalik.
17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea puzgarriekin.
17:00/21:00 Gudarien plazan "Disco festa" haurrentako.
17:30 "Samasiku" fanfarrearekin kalejira.
18:00 Buruhandiak.
21:00 Etxafuego jautiketa eta jaien amaiera.

sofa leniz 

Helbidea:
Astelehenetik larunbatera
zabalik. 09:30 -13:00 /
16:30 - 20:00.
Astelehen goizean itxita.

Araba etorbidea 3
Tel./Faxa: 943 79 27 16.

 **INMOBILIARIA EKOS**

Zentro interaktiboa
Eroski merkataritza
gunean

Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 79 19 88
Faxa: 943 77 15 76
emaila: ekos@ekos.org

LENNON

TABERNA

*Geurean
giro
onena!*

Bañez doktorea 8
ARRASATE


Jai zorientsuak
opa dizkizuegu!

Ondo pasatu jaietan!!

 **arrasate**
Herri Eskola

BEDOÑABE

Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 69 • Faxa: 943 79 00 44

 **IRIZTU**

IRIZTU TABERNA
Maiatzak 1ean, mus txapelketa.
Aurrez izena eman!

IZAGIRRE
HIRATEGIA-VRDATEGIA

 **Izi**
JOSEAN

Kurtze Txiki plaza 2
Tel.: 943 79 59 86

AKADEMIA
BASTIDA
LANBIDE HEZIKETARAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1
Arrasate
Tel.: 943 79 35 33
943 79 32 16
Faxa: 943 79 06 28
emaila: bastida@bastida.es

RUIZ



- Osagarriak
- Denentzako opariak

**gizon
emakume
gazte**

Bañez doktorea, 4
Tel.: 943 79 19 94

BITTORI
ERRETEGIA

*Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak
eta txuletak*

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 55 82

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a

378. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Oinezkoendako pasabidea egingo dute zubi azpitik Aretxabaleetako sarreran

MIRARI ALTUBE

Aretxabaleetako saihebidetaren iparraldeko sarreran, hau da, Arrasatetik datorren errepidea Aretxabaletan sartzen den tokian, zubi azpiko pasabidea egingo du Foru Aldundiak oinezkoendako. LKS enpresak egin zuen proiektua 2003an, eta orain ikusgai jarri dute.

Aldaketa asko izango ditugu urte gutxian herriko iparraldeko sarreran. Trenbidea erreka albotik bideratuko dute, eta Arrasatera doan errepidea pasatzeko ibilbidea egingo du zubiaren azpitik Foru Aldundiak.

SEGURTASUN ARAZOA

Herritar asko ibiltzen da Aretxabaleetatik Arrasatera joan-etorrian lehengo trenbidea aprobeztatuta. Arrasaterantz egiteko, baina, errepidea pasatu behar da, eta oinezkoak asko badira automobilak izugarri. Orain arte istripu larririk gertatu ez bada ere, gerta daitekeela ikusi zuten bi herrietako Udalek, eta kezka horiek azaldu zizkioten Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailari bere garaian. Hala, gune horretako segurtasun arazoa konpontzeko asmoarekin LKS enpresari proiektua egiteko eskatu



Arrasateko bidegorrira joateko errepidea gurutzatu behar dute oinezkoek; benetan arriskutsua zenbat auto dabilen ikusita.

zion Foru Aldundiak 2003an. Egin bai, baina orain arte geldi eduki dute. Arazoa larria dela konturaturuta edo, lanak lehenbailehen hasi behar direla erabaki dute orain.

ZUBIAREN AZPIKO PASABIDEA

Deba ibaia gurutzatzeko dagoen zubiaren azpian egingo dute pasa-

bidea, eta ibilbidearen bi ertze-tako bidegorriekin egingo du bat: Arrasatetik datorrenarekin eta Aretxabaleetatik doanarekin. LKSk egindako proiektuak proposatzen du hiru metro zabal eta 320 metro luze dituen pasabidea egitea. Gehienez ere %6ko maldaz izango du. Argiteria zerbitzua jarriko dute, bide gorrietan dago-

en antzera, eta pasabidea egiteko Deba ibaiaren zati bat esku-ma aldera bideratuko dute.

Dagoeneko eman du ontzat proiektua Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Sailak. Lanak egiten hasi aurretik, ordea, hilabetez izango da ikusgai aipaturako proiektua udaletxeko Hirigintza Sailean, maiatzaren 15a

Istripu larria gerta daitekeela ikusi zuten bi herrietako Udalek, eta hala jakinarazi zuten

Zubiaren azpian egingo dute pasabidea, eta bi bidegorriekin egingo du bat

Hiru metro zabal eta 320 metro luze izango ditu, gehienez ere %6ko maldarekin

arte, hain zuzen. Egin behar dituzten lanak ikusi gura dituenak udaletxean hitzordua eskatu behar terik ez du.

Erreka osteko etxeak egiteko lehenengo probak egin dituzte

M.A.

Etxe asko egingo dituzte erreka ostean, ia 550. Horieta-tik 185, Udalak finkatutako preziodunak, Gabonetan zozketatu zituzten, eta asteen hasi da Bruesa enpresa eraikitzailea planoak ikusteko dei egiten.

Deba erreka ostean beste aldean etxebizitzak egiteko izendatu zuten, eta 550 inguru egingo dituzte kirol-etxean hasi eta Lausitta kalera bitartean.

Horretarako baina, azterketa geologikoak egin behar dituzte lehenengo, eta horretan ibili dira azken bi hilabeteotan. Ondoren, urbanizazio proiektua eta konpentsazio proiektua aurkeztu behar dizkio Bruesa enpresa eraikitzaileak Udalari, eta azkenik etxeok egiten hasiko dira.

PLANOAK IKUSTEKO DEIA

Etxeok eraikitzen hasi aurreko pausoak ematen dabil Bruesa. Hala, asteen jaso dute Gabonetan zozketatu zituzten etxeen

jabeek planoak ikusten joateko deia. Ekainean izango da hori.

Bruesak 428 etxebizitza eraikiko ditu kirol-etxetik Cerrajera Valle Leniz lantegira bitartean. 185ek Udalak finkatutako prezioa izango dute. Beste 100 babes ofizialekoak izango dira, 80 prezio librea dutenak eta 18 txaletak. Gainerako 45ak sustatzaileraren eskuetan geratuko dira.

Bestalde, CVL lantegia lekuz aldatzen dutenean 121 etxebizitza egingo dituzte bertan; prezio librea izango dute guztiek.



Zundaketa lanak egiten ibili dira azken bi hilabeteotan erreka ostean beste aldean.

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 30
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22
DOMEKA, 1
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murrakxo ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gornia 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Ez dago mezarik.
MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)
GELLAO
Ez dago mezarik.

BAZKIDEAK EGITEKO KANPAINA JARRI DU ABIAN

Abantaila ugari izango dituzte Loramendi EEko bazkideek

MIRARI ALTUBE

Bazkideak egin gura ditu Loramendi Euskara Elkarteak. Hala adierazi dute egunotan herritarrei helarazi dieten eskutitzean. Bazkideek, gainera, hainbat zerbitzu jasoko dituzte trukean.

Loramendi EEk bazkideak egiteko kanpaina jarri du abian. Helburu horrekin eskutitzak bidali dizkiete herritarrei. Bazkide direnek ere datuak berrituta bete behar dute txartela.

HAINBAT ZERBITZU TRUKEAN

Urtean 25 euro da Loramendi EEko kuota. Horren truke, baina, hainbat abantaila eskaintzen ditu euskara elkarteak: ikastaroak, ludoteka eta *Astehenekoa Goiienkaria* merkeago. Antolatutako ekintzen berri ematen duen triptikoa bidaltzen die bazkideei, eta hiru hilean behin afari bat zozketatzen du.

Orain, horiez gain, beste aukera batzuk eskainiko ditu: euskara elkarteek Debagoienean antolatzen dituzten ekintzen berri jakinaraziko die posta elektronikoko bidez, eta horietara joateko sarrerak eta Badihardugu elkarteak argitaratutako liburuak zozketatuko ditu.

HIRU HILEAN BEHIN EGITARAUA

Loramendi EEk Udalaren dirulaguntza jasotzen du. Hala ere, bazkideak oso garrantzitsuak direlakoan dago, eta dituenak gehitu gura ditu kanpaina horrekin. Udaleko Euskara Zerbitzuekin eta Kultura Sailarekin batera egiten du lan. Hala, hiru hilean behin egitaraua kaleratzen du eta hitzaldiak, ikastaroak eta beste hainbat ekintza gertatzen ditu. Horrez gain, gazteei arreta berezia eskaintzen die eta geure euskaran idatzitako *Dakixenak Eindaxela* orri papera banatu du ikastetxeetan.

HARTZAREN GAINEKO BERBALDIA

Datorren egunean, maiatzak 5, hartzaren gaineko berbaldia egin-



Apirila eta ekaina bitartean antolatutako ekintzak aurrera doaz.

go du Migel Mari Elosegik. Tolosarra da bera, eta *Hartzak Pirinioetan XXI. mendean* saiakerarekin Juan Zelaia saria irabazi zuen. Hartzak Pirinioetan duen garrantzia aztertzen ibili da sei urte baino gehiagoan Migel Mari, eta horren berri emango die aretxabaletarrei. Cannelle hartzaren heriotzak izan duen eragina ere aipatuko du. 19:00etan izango da berbaldia, udaletxe zaharrean.

Maiatzaren 12an, ostera, Jon Arretxe Basauriko idazle eta bidaiaria etorriko da. *Griot* bidaia liburuaren aurkezpena egingo du. Haur eta gazte literatura, saiakera eta narrazioa landu ditu Arretxek, eta *Griot* laugarren bidaia-liburua du.

Eguenean, maiatzak 5, hartzaren gaineko berbaldia egingo du Migel Mari Elosegik

LABUR

Gaixoen oliadura egingo dute bihar, 19:00etako mezan

Bihar, apirilak 30, gaixoen oliadura egingo dute Andre Mariaren Zeruratze parrokian, 19:00etako mezan. Sakramentua hartu gura dutenek izena eman behar dute aurrez sakristian. Deialdia batez ere gaixorik daudenendako eta 65 urtetik gorakoendako egin dute.

KZ Guneak gertu ditu maiatzerako ikastaroak

Hainbat ikastaro antolatu ditu KZ Guneak maiatzerako. Batzuk orokorrak izango dira, hau da, Internet ginetik ezagutzeko, eta beste batzuk gai zehatz baten gainekoak. Azken horien artean daude: ardoa ezagutu, postala zelan bidali, finantzekin lan egin, Adobe Acrobat Reader programa ezagutu, egunkaria irakurri eta Outlook Express programa zelan erabili ikastaroak. Euskaraz izango dira guztiak, arratsaldeetan, eta izena emateko KZ Gunea deitu behar da (943 79 94 44).



Mitologian oinarritutako topaketak

Literatura Topaketak egin dituzte astean Kurtzebarri eskolan, eta atzo bukatu zituzten Irakur Maratoiarekin. Aurten, euskal mitologia izan dute lagun, eta sorginak, jentilak eta aspal-diko kondairak landu dituzte lau egunetan. Jesus Mari Olai-zola *Txiliku* idazlearen sekretuak ezagutu zituzten batzuek, marrazkiak, jolasak eta ipuinak kontatu zituzten beste batzuek. Irakur Maratoian ikasleek gain gurasoek eta herritarrek ere izan zuten lekua, eta gaur, eguraldia lagun, irteerak egin dituzte nagusienek Urkulu, Muru eta Galartzara. / M.A.

Angelines AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Patinaje ikastaroa antolatu dute aurrekoaren arrakasta ikusita

M.A.

Patinaje ikastaroa antolatu dute Udaleko Kirol Zerbitzuek. Izan ere, otsailean egin zutenak izugarritzko arrakasta izan zuten, eta errepikatzea erabaki dute. Maiatzaren 4an bukatuko da izena emateko epea, eta lehen bezala, Mikel Morrasedi emango ditu eskolak.

Aurtengo bigarren patinaje ikastaroa antolatu du Udaleko Kirol Zerbitzuak. Izena emateko epea maiatzaren 4an, eguaztena, bukatuko da, eta izena emandako lagun kopuruaren arabera ikastaroak aurrera egingo du edo ez.

BI MAILA AUKERAN

Lehen bezala, bi maila izango dituzte aukeran interesatuek: hastapena, hasiberriendako, eta hobekuntza, teknika hobetu gura dutenendako. Hori bai,

biak dira helduendako, hau da, 16 urtetik gorakoendako.

Zapatuetan emango ditu eskolak Mikel Morrasedi arrasatearrak, eta 7 saio izango dira maiatza eta ekaina bitartean. Hastapena hautatzen dutenek 10:00etatik 11:30era izango dituzte eskolak, eta hobekuntzara doazenek 11:30etik 13:00etara. Taldea sortzeko, baina, gutxienez 12 lagunek eman beharko dute izena. Debarroko Kirol Zerbitzuetako abonatuak 20 euro ordaindu beharko dute ikastaroa, eta gainerakoak, 24

euro. Izena emateko kirol-etxera deitu (943 71 26 28) edo *kirola@aretxabaleta.net* helbidera idatzi.

IZUGARRIZKO ARRAKASTA

Gero eta jende gehiagok atsegin du patinekin ibiltzea. Horren erakusgarri da otsailean egin zuten ikastaroa, izugarritzko arrakasta izan zuen eta.

35 lagun ibili ziren orduan; hastapen ikastaroan 19, eta hobekuntza ikastaroan 16. Aretxabaletarrez gain inguruko herrietatik ere hainbat lagun hurreratu ziren patinekin ibiltzen ikastera.

Behin ikasi ostean leku egokia behar da patinekin gustura ibiltzeko. Batzuk Urkulura joaten dira, eta gainerakoak Debagoieneko beste herri batzuetan bilatzen dituzte lekuok, Garagartzara bidean edo herriko pilotalekuetan esaterako.

Lehenengo ikastaroan 35 lagun ibili ziren; 19 hastapen mailan, eta 16 hobekuntzan



Izugarritzko arrakasta izan zuen aurtengo lehen ikastaroak, 35 lagun ibili ziren.

LABUR

Realaren lagunartea sortu gura dute herrian; edozein Realzalek eman dezake izena

Real Sociedad taldearen lagunartea sortzeko burutazioa izan dute herriko hainbat lagunek. Orain herriko Realzale guztiei zabaldu gura diete gonbitea, eta edozeinek eman dezakeela izena gaineratu dute: ume, gazte, zein nagusi. Arlutz eta Orly

tabernetara jo behar dute interesatuek izena ematera, eta 10 euroko fidantza utzi behar dute.

Lagunartea sortzeko lehenengo pausoak ematen dabilza Aretxabaletan, eta izenak jaso ostean, Realera joko dute ekimenaren berri emateko.

Partidu gogorra du preferenteak

Partidu benetan zaila dauka domekan preferenteko taldeak Zumarragan. Urola izango du aurrez aurre, eta puntu baten diferentzia besterik ez dute. UDAk 37 puntu ditu eta 16. dago sailkapenean; Urolak, oster, 36 puntu ditu eta, 18. dago.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urola-UDA
Preferentea.
Domeka. Zumarraga.
UDA/Arizm.-Real Union
Infantil ohorezko maila.
Zapatua. 10:15. Ibarra.
UDA-Antiguoko
Ohorezko gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Bergara
Egubakoitza. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Orioko 0
Preferentea.
Ondarroa 0 UDA 0
Ohorezko gazteak.
UDA/Arizm. 0 Bergara 3
Lehen mailako gazteak.
UDA/Arizm. 5 Eibartarrak 0
Lehen mailako kadeteak.
UDA/Arizm. 4 Ikasberri 3
Bigarren mailako kadeteak.
Sp Herrera 1 UDA/Arizm. 1
Infantil ohorezko maila.

Mutriku 11 Almen/UDA 0
Emakumezkoen liga (igoera).
Urola 5 Almen/UDA 2
Emakumeen F-8 liga.

PILOTA

Deba Arroko Txapelketa
Errasti 22-Oion/Uriarte 3
Lasagabaster/Alzola 22-
Agirrebeña/Andonegi 6

Jauregi Okindegia

Otolora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15



FELIX PAGALDIA

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behe
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 36



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otolora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA




ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu maitezien leko jaixe 2re pasetie? Jaixek badauko zentzurik?



JAVI DEL FRESNO
Langillie




MIRIAM URIBARREN
Langillie



TOMAS BESA
Jubilaue



MARIA LUISA LEGARRA
Langillie



FRANCISCO GARCIA
Jubilaue



MARI JOSE MARTINEZ
Langillie

Ondo, domekan ezin dou jai-rik hartu, hortaz, lan egu-nien jai hartzie ondo dau. Jentiek, dana dala, kanpo-ra urtetie besterik ez dau gure izeten, sindikatuiek bakarrik ospaketan daue.

Bueno, ondo, jai dan bittar-tien... Gauza haundirik ez dakit egitten dan gaur egu-nien, jai hartzeko egune izeten dala pentsetan dot. Jai sinbolikue bihurtu dala esango nauke.


Tontokerixa galanta pen-tsetan jat aldaketie. Ze zeri-kusi dauko maitezien lak 2xekin? Jai egitteko bere egunien egin biher da. Eta gaiñera, ez dot pentsetan zentzu haundirik daukenik.

Ez dakit, baiñe pentsetan dot egune errespetau egin biher dala. Aldaketie ez dutzet zentzurik topetan, eta jaixek be ez daukela indderrik uste dot; sinbo-lismo hutsien geratu da.

Domekan dala eta aldatu? Elixako jai egunek ez dittue ba aldaketan... Langillien egune maitezien la da, eta 2xe madrildarrendako. Gu-re dauena egittie daukie, bai-ñe ez jat pentsetan serixue.

Tontokerixie dala. Oin, oso ondo dau zubixe dauken jentienako, hobeto aprobe-txetako jai egunek. Izen be, horixe gure dou danok, kan-pora alde egittie. Lauk bes-terik ez daue ospaketan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK NON DAUDE ZEBRABIDEAK? Urkulura doan bidegorri dotorea egin ziguten, baina hara heltzeko zebra-bidea jartzea ahaztu zitzairen. Etxe berriak egin zituzten, baita taberna ere, baina zebra-bidea jartzea ahaztu zitzairen. Gero tranbia etorriko da, eta auska-lo zelan geratuko den ingurua, baina bitartean zebra-bide barik egon behar ote dugu? Lehenbailehen behar delakoan nago. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Aretoaren proiektua erakutsi zuen Udalak

Musika eskola dagoen tokian, Otolara kaleko 27an, hainbat era-bilera izango zituen aretoaren proiektua egin zuen Udalak. Herriko kultura taldeei erakutsi zien, eta hauek oniritzia eman zio-ten. Gainera, politikarien arteko adostasuna lortu eta aurrera egin zezatela eskatu zieten.



ASTEKODATUA

37

PUNTU DITU UDAKO PREFERENTEKO TALDEAK

Sailkapeneko 16. postuan dago domekan irabazi ostean. Hala ere, zuloa oraindik gertu dauka, eta irabazten jarraitu behar du. Izan ere, azken postuetan talde asko daude puntu berdintsuekin.

BESTEKEESANA

Telebistek 'itzali telebista 2005'ak proposatutako egun hauek iragarri ere ez dituztenez egingo, ez dut uste jende asko enteratu ere egingo denik. Zentzurik ere ez diot aurkitzen horrelako egun bereziak antolatzeari; zer gertatuko litzateke benetan astebetetz telebista seinalea eten eta ikusteko aukerarik ere ez bagenu izango?

OIHANE AGIRRE
'Astelehenerako Goienkaria'/05-04-25

Uste dugu egokiena Urzaiz kontratua berritzea dela, nahiz eta diru asko eskatzen duen. Egia da Llorenteri minutu gehiago eman behar zaizkiola, baina Urzaiz oraindik jokatzeko moduan dagoela uste dugu.

ALVARO URRETA
'Astelehenerako Goienkaria'/05-04-25

HERRITARRENBERBAK/ Arrate Arkauz



Handi egiten naizenean...

Gauean, ohe gainean lo egin ezinik eta gora begira nagoela, buruak mila erre-paso egiten dituen horietako batean, handi egiten naizenean udaltzaina izango naizela erabaki dut. Ni, udaltzaina. Horrela, nik ikusi ezin ditudan pertsonen automobileren isunak jarriko dizkiet, eta ezagutzen ditudane-kin, lagunenekin, berriz, ez ikusiare-na egingo dut. Daukadan egunaren arabera, hobeto edo okerrago portatuko naiz herritarrekin. Nahi dudana tokian jarriko ditut isunak, eta nahi ez dudana tokitik paseatu ere ez dut egingo, badaezpada. Gainera, jarritako isuna ordaintzera datozenean, dakarten aurpegiaren arabera barkatu egingo diet edo ez diet barkatuko. Neure baitan egongo da guztia, neu naizela-ko udaltzaina. Gainera... Bueno hobeto pentsatu dut, eta ez, ez naiz udaltzaina izango, ez behintzat neure herrian; bestela, herritarren aurpegi

ilunak ikusi beharko ditut. Agian, ni handi egiten naizenerako aparkaleku gehiago izango ditugu herrian, eta ez da gaizki aparkatu beharrik egongo. Agian handi egiten naizenerako udaltzainek ez dute hainbesteko lanik izango.

"Isuna ordaintzera datozenean dakarten aurpegiaren arabera barkatu egingo diet edo ez diet barkatuko"

Egia esan, denoi gustatzen zaigu etxe ondoan aparkatzeko aukera izatea, gure herria polit eta ordenatua egotea, denok gustura paseatzeko espaloi zabalak edukitzea, inguruan loreak ikustea eta txakur-reek kaka egiteko zelaitxo edo lorategiez goza-tzea... Baina ez dugu ukatu behar, gure herrian badela aparkaleku gehiago egiteko modurik, eta ez dakit zergatik ez dituzten egiten.

Bueno, logura apur bat ere badut eta hobe izango dut lo egitea. Nire beroaldi batengatik ez dut herri guztia hankaz gora jartzeko eskubiderik, eta gutxiago, gure herriaren alde lanean ari direnak.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Karmele Etxabe

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a / 206. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otalora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Iraunkortasunerako Tokiko Foroa abian jarri dute

IKER BARANDIARAN


Tokiko Agenda 21en prozesuaren barruan, Eskoriatzako Udalak Iraunkortasunerako Tokiko Foroa abian jarri du. Horren bidez, udalerraren iraunkortasunaren aldeko pausoak eman gura dituzte, eta ezinbestekotzat dute herritarren parte-hartzea.

2004ko apirilean Udal Talde 21 Debagoiena lan taldea osatu zuten, Agenda 21 egitasmoa ibarrean ezartzeko. Hainbat prozedura Debagoiena mailan egiten dituzten arren, udalerrri bakoitzari autonomia eman diote dagozkion pausoak eman dituzten.

Eskoriatzako Udala, Ingurune enpresarekin batera, udalerraren gaineko diagnosi osatua egiten dabil. Dagoeneko zirriborroa eginda daukate eta martitzenean osoko bilkuren aretoan horren gaineko azalpenak eman zituzten.

ESKORIATZARRAK, KONTENTAGAITZ

Horrez gain, Mankomunitateak eta aipatutako enpresak inkesta bat egin dute ibarrean, debagoiendarrek hainbat arlo zelan baloratzen duten jakiteko. Jasotako datuen arabera, eskoriatzarrak dira euren herriarekin kontentagaitzen dauden debagoiendarrak. Horrekin lotuta, honako hauek dira eskoriatzarrak gehien arduratzen dituzten gaiak: etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizuna, pobreziari aurre



Ingurune enpresako ordezkariak egin zuten ekimenaren aurkezpena.

egiteko lanak, eta droga-menpekotasunak dituztenei laguntzeko ekimenak, hain zuzen ere. Ingurumenari dagokionez, oinezkoendako ekipamenduak, erreken egoera eta berdeguneen urritasuna dira ardura handienak.

**Udalerraren gaineko
diagnosia bukatu
ahala, gura duten
herritar guztiak
foroan elkartuko dira**

Martitzeneko aurkezpenean, Ingurune enpresako Arkaitz San Josek eta Karlos Alonsok nabarmendu zuten Tokiko Agenda 21 ez dela bakarrik ingurumenean oinarritzen. "Ingurumenaz gain, egoera ekonomiko eta soziala ere kontuan hartzen ditugu. Azken finean, iraunkortasuna gure eta ondorengo bizi-kalitatea bermatzea da", azaldu zuten.

Ekimenaren berri eman eta diagnosiaren zirriborroa aurkeztu ostean, osoko bilkuren aretoan batutako herritarrek mahai-ingurua egin zuten. Foroaren hurrengo batzar irekia San Pedro jaien aurretik egin gura dute.

Zeramikaren gaineko erakusketa bitxia Ibarraundin

I.B.

Telleria Baserriko Jaia 05 jardunaldien barruan, zeramikaren gaineko erakusketa jarri dute Ibarraundin. Pareja eta Bayarri artista valentziarren *Esculturas de luz* ikusgai dago.

Telleria Baserriko Jaia 05 ibarrean antolatzen dituzten bigarren zeramikagileen topaketak dira. Iaz *Ceramikarte* webguneak Arrasaten egin zituen jardunaldi horiek, eta ekimenak oso harrera ona jaso zuen.

Horregatik, aurten, beste edizio bat antolatzea erabaki dute, eta egitaraua Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan banatu dute.

Horren bitartez, Eskoriatzako zeramikaren gaineko lan berritzaileak ikusteko aukera izango da. Hain zuzen ere, atzo, egun inauguratu zuten Rafael Pareja eta Samuel Bayarri artista valentziarren erakusketa, *Esculturas de luz* izena duena.

Ibarraundi Museumean jarri dute erakusketa, eta maiatzaren 16ra arte egongo da ikusgai. Orduz honako hau da: astelehenean, 09:00etatik 13:00etara; asteartean, 13:00etatik 16:00etara; asteazkenetan, 12:00etatik 14:00etara; eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

Valentziako bi artista horien sari ugari eskuratu dituzte egindako lanengatik.



Rafael Pareja eta Samuel Bayarri artistek sari asko jaso dituzte.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

**Txalaparta
taberna**



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

AITZORROTZ EGUNA

Herri bazkari barik bada ere, guztia prest Aitzorrotz egunerako

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko heldu da eskoriatzarrek hain gustuko duten eguna: Aitzorrotz eguna. Aspalditik ospatzen dute egun hori, eta izen handia dauka bai herrian eta baita ibarrean ere. Hain zuzen ere, nagusiek eta txikiek mendi horren inguruak bete egiten dituzte egun seinalatu horretan.

Jai horren jatorriaren gainean hainbat esames daude, eta esaterako bitxia da jaia zein egunetan ospatu behar dutenaren gaineko zalantza. Batzuek diote maiatzeko lehenengo domekan dela; eta beste batzuek, Santa Kurtz eguna igaro eta ondorengo lehenengo domekan izan behar dela. Kasu batzuetan bakarrik sortzen da zalantza hori, baina halakoetan Bolibarko parroko On Kruz Abarrategik izaten du azkeneko hitza. Izan ere, bera da Aitzorrotzeko ermitako ardura-duna.

Urtero moduan, 09:00etan txistulariek diana joko dute, herri-tarrei egunaren berri emateko. 09:30ean, hainbat lagun herriko plazan elkartuko dira Aitzorrotzera taldean igotzeko. 11:30erako, Aitzorrotzeko ermitan meza hasi orduko, mendi puntan egongo dira gehienak.

Elizkizunaren ostean, Xapre eta Zaharra tritikitulariek emaldia egingo dute, eta mendian batutakoak alaitu egingo dituzte.



AITOR LIZARRALDE

Oso garrantzitsua da Aitzorrotz eguna eskoriatzarrendako eta, kontuan hartzeko hitzordua debagoiendarrendako.

EZ DUTE HERRI BAZKARIRIK EGINGO

Aurtengo aldaketa nagusia izango da ez dutela herri bazkaririk egingo. Azkeneko urteotan eguraldi txarraren ondorioz ez dira hainbeste lagun batu, eta hortaz hori kentzea erabaki dute antolatzaileek. Horren ordez,

Aitzorrotzeko tabernan ogitarte-koak eta kafea gertatuko dituzte. Hala, mendian bertan bazkaldu gura duenak izango du aukera.

JAIK ARRATSALDEAN JARRAITUKO DU Urtero legez, arratsaldean menditik herrira jaitsi eta jaiak

herrian jarraituko du. 18:30ean, Kaixo taldearekin dantzaldia izango da herriko plazan, eta herritarrek etxean egindako tortillak salduko dituzte. Tortillekin jasotako dirua Aitzorrotz gobernu-z kanpoko erakundeari eta elbarrituei bideratuko diete.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Lois Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

AKONKAGUAREN GAINEKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Aitzorrotz Kultur Elkarteak Akonkaguaren gaineko argazki erakusketa jarriko du Inkernu tabernan. Maiatzaren 3tik 18ra egongo da ikusgai.

EUSKAL LIGAKO ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, euskal ligako areto futbol taldeak Frutas Adarraren kontra jokatu du, 17:00etan.

SAN PEDRO JAIETARAKO NORMA-IRUDI LEHIAKETA

Abian jarri dute San Pedro jaietarako horma-irudi lehiaketa. Informazio gehiago, kultura etxean.

AXTROKIRENAGENDA

ASTELEHENEKO GOIENKARIKO HARPIDETZAN BEHERAPENA

Axtrokiko bazkideek 5,50 euroko beherapena izango dute Asteleheneko Goiencariko harpidetzan. Deitu honako telefono zenbakira: 943 76 92 70.

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk. Tel: 943 71 47 36 Eskoriatza



Bihar, zapatua, Anger eta Biok taldeen kontzertua gaztetxean

Gaztetxeko batzarra hasi da berriro gogor lanean. Bihar, zapatua, kontzertu indartsua egingo dute, 22:30ean. Galdakaoko Biok eta Arrasateko Anger taldeek metalaren muturrean dauden kantuak eskainiko dituzte, beti ere melodiak zainduz. Biek hala biek ibilbide arrakastatsua egin dute, eta Eskoriatzan kantu berriak aurkeztuko dituzte. Angerrek laster izango du disko berria. /I.B.

LABUR

Apotzagako bide alternatiboarekin hainbat arazo

Badirudi Apotzagako arazoa ez dela berehala konponduko. Aurrekoan aditzera eman genuen Udalak bere gain hartu zituela bide berria egiteko lanak. Hortaz, autobideko lanek iraun bitartean, Apotzagako lagunek beste bide hori erabili ahal izango zuten.

Lanak hasita daude (joan den asteko martitzenean hasi zituzten) eta ez dituzte eten, baina arazo bat dute. Bidea Aretxabaletako Apotzaetxe-barri auzotik igaroko da, eta hala jakinarazi zioten Aretxabaletako Udalarari. Baina asteburuan, Apotzaetxe-barriko lagunek aditzera eman zuten ez dutela hori onartuko. Hori entzun ostean, Eskoriatzako Udaleko ordezkariak Aretxabaletako alkate Arritxu Olidenekin batzar bat egiteko asmoa zuten.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko apirilaren 29a / 148. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Koadrilako ibilaldien artean, lehenengoa Olaetara izango da, datorren domekan

UBANE MADERA

Zuiako Koadrilak aurkeztu du aurtengo ibilaldien egitaraua. Maiatzaren 8an hasi eta urriaren 23ra arte, hiruzpalau irteera antolatu dituzte hilabete bakoitzerako (abuztuan ez). Olaetara joango dira maiatzaren 8an. Izena emateko epea maiatzaren 7an bukatuko da.

Orein granja bat, eliza eta ahabiasailak bisitatuko dituzte Olaetan, datorren domekan. 09:00etan aterako da autobusa Gasteiztik, Europa Gizarte Etxetik, eta leku berera itzuliko da, 14:00ak aldera. Izena emateko honako telefonora deitu behar da: 945 14 55 99. Askok jota, 35 lagunendako lekua izango da.

MAIATZEKO TXANGOAK

Horrekin estreinatuko dute Zuiako Koadrilako aurtengo ibilaldi programa.

Hurrengo ibilaldia maiatzaren 15ean egingo dute, Oiardora; maiatzaren 21ean, berriz, Olleriasera txangoa antolatu dute eta bukatzeko, maiatzaren 28an, egun osoko ibilaldia egingo dute: Zurbano, Olano, Murgia, Izarra, Beluntza eta Manurga bisitatzeko.



Koadrilako lehen ibilaldian, Olaetako leku eta parajeak bisitatuko dituzte datorren domekan, hilak 8.

Handik aurrera, hilero hiru irteera egingo dituzte, ibilbide mota bakoitzeko bat.

AUKERATUTAKO IBILBIDEAK

Izan ere, hiru ibilbide mota antolatu ditu Zuiako Koadrilak: *Jaurerrien arteko bideak* da bat. Olaeta, Elosu, Ullibarri-Ganboa eta Zurbano herriak ikusiko dituzte

ibilbide horretan. Besteak beste, jauregi dotoreen artean paseatzeko gonbita egiten du Koadrilak. Esaterako, Zurbanon XVII-XVIII. mendeetako makinatxo bat jauregi-etxe dituzte ikusteko.

Bigarren ibilbideari *Naturaren fruitua* izena ipini diote. Ollerias, Manurga, Murgia eta Olaeta no ikusiko dituzte. Hain justu ere interes artistiko zein historikoa nabarmena duten erromatar aztarnadun elizak, errota museoak... bisitatuko dituzte. Esaterako, Olleriasen Euzko Buztingintza museoa ikusiko dute eta Murgian, eztiarena.

Bukatzeko, *Ura eta harriaren artean* izeneko ibilbidean monumentu megalitikoak, trankuharriak, tumuluak... ikusteko aukera eskaintzen du Zuiako Koadrilak. Oiardo, Goiuri, Izarra eta Beluntza bisitatuko dituzte.

EGUN OSORAKO HIRU IRTEERA

Horrekin batera, egun osorako hiru irteera ere egingo dituzte. Maiatzekoaz gainera, ekaineko beste bat egingo dute: Ollerias Olaeta, Elosu, Manurga eta Olaeta no bisitatzera. Eta urriaren egun go dute hirugarrena: Zurbano Murgia, Beluntza, Izarra eta Oiardo ikusiko dituzte.

Txango guztiak gidaririk lagunduta egingo dituzte, Gasteizko Animación enpresatik.

Arexolako lanik zailenak egin dituzte

U.M.

Joan den astean hasi ziren Arexola auzoan konpontze lanak egiten. Excavaciones Arrasate enpresak dihardu horretan. Enpresako ordezkariak kontatu digunez, bi hilabete eta erdi barru lanak bukatuta izatea espero dute. 240.000 euro pasatxo inbertituko dituzte.

Santa Marina elizari eusteko lanak eta plaza eta ingurua urbanizatzeko lanak egiten dabil Excavaciones Arrasate enpresa Arexolan. Enpresako ordezkariak

jakinarazi digunez, dagoeneko, okerrera bukatu dute: auzoko elizari eustea, hain zuzen ere. Elizaren kontrahormak jaso dituztela aditzera eman digu. Gaineratu digunez, datozen asteotan, plaza eta inguruak zolatzeko lanak egingo ibiliko dira. Besteak beste, galzada-harriak ipini behar dituzte.

Horrekin batera kontatu digu, zolatzeko lanak egiteaz batera, Arexolako plaza handitzeko lanak ere egingo dituztela. Halaber, lanak bukatu ostean, plaza bi metro zabalagoa izango dela.

Bukatzeko, jakinarazi digu lanok ez dutela eragozpenik sortuko autoen joan-etorrian.



Auzoko Santa Marina elizari eusteko hormak egin behar izan dituzte.

LABUR

Udalaren uztaileko udalekuetarako izena emateko epea

Uztailaren 6tik 19ra bitartean dira aurtengo udalekuak. Parte hartu nahi duenak maiatzaren 20a baino lehen ematea behar du izena, udalarekin Ume bakoitzak 36 euro ordaintzeko beharko ditu. Taldeak maiatzaren bukaeran osatuko dituzte. Era berean, begirale izan nahi duenak ere zabalik dituzten izenemate epea. 17 urtetik gorakoak izan behar du eta zera behar izango dute: begirale titulua edo maisutza ikasketak izatea, EGA titulua, esperientzia eta Aramaiokoa izatea. Izena emateko azken eguna: maiatzak 20.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Batika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUETAN, JENDE GUTXI
Gaurko honetan, Alex de la Iglesia zuzendariaren *Crimen Ferpecto* filma emango dute. Komedia da, 105 minutukoa. Besteak beste, Guillermo Toledo, Monica Cervera eta Luis Varela aktoreek parte hartzen dute. Bestalde, zinema-saio horien antolatzaileek herritarrek animatu nahi dituzte barikuetako zinema-saioetara joateko, orain arte herritar gutxi joan izan da-eta.

UMEENDAKO ZINEMA
Marrakizi bizidunen atalean, klasikoen artean klasikoenetako bat emango dute domekan umeendako zinema saioan: *Bambi*.

ITUR-ZURIEN BIDAIA
Soria eta inguruak bisitatze-ko txangoa antolatu du Itur-Zuri Emakume Elkarateak. Ekainaren 4an eta 5ean izango da irteera. Izenematea, berriz, maiatzaren 3a baino lehen egin beharra dago. Kultura etxeko orriari bertan eman daiteke izena, edo Itur-Zuriko batzordeki-deei abisatuta.

Apirilean eta maiatzean, umeak kantari, Arrasaten eta Gasteizen

U.M.

Papargorri abesbatza buru-belarri dabil datozkion hitzorduak prestatzen. Batetik, bihar, zapatua, Arizmendik antolatutako eskolarteko abesbatzen topaketetan parte hartuko du. Bestetik, maiatzean Gasteizen izango da, hango topaketetan.

Biharko saioari dagokionez, zortzi abesbatzak parte hartuko dute Arrasateko topaketetan. Uarkapen izango da saioa, 17:00etan hasita. Sarrerak zapatu goizean edo arratsaldean bertan eros daitezke, hiru euroren truke. *Man-txa Pio* eta *Uso Txuria* kantuak interpretatuko dituzte aramaio-arrak, Arantza Uriarteren zuzendaritzapean. Blanka Mendialdua irakasleak jakinarazi digunez, 18 neska-mutilek abestuko dute Aramaioko taldean.



Maiatzaren 21ean parte hartuko du Papargorriko Gasteizko kontzertuan.

GASTEIZEN, LEHENENGO ALDIZ

Bestalde, maiatzaren amaiera aldera antzeko zerbitzu izango dute, baina oraingo honetan, Gasteizen. Hain justu ere, Arabako Federazioko Haur Abesbatzen kontzertuan parte har-

tuko dute Papargorrikoek. Guztira, 12 abesbatzek parte hartuko du urtean behin egiten duten kontzertu horretan, gehienak Gasteizkoak.

GUTZIAK BATERA ETA LAUNAKA

Kontzertuak bi zati izango ditu. Batetik, abesbatza guztiek batera kantatuko dute; eta bestetik, taldeak launaka banatu eta lau-

Bihar, San Martin
Eskolako 18 neska-mutiko izango dira Arrasateko topaketetan

Maiatzaren 21ean,
Arabako Federazioko Haur Abesbatzen kontzertuan izango dira

ko talde bakoitzak kontzertu bana emango du. Bestelakoen artean, Kataluniako kantu batzuk abestuko dituzte: *Sukaldean Iraultza*, esaterako.

Maiatzaren 7an dute kontzertu horretarako aurreneko entsegu orokorra, Gasteizen.

Halako batean parte hartzen duten lehenengo aldia da.

Azokak emaitza ona izan duelako, pozik

U.M.

Azokaren gaineko balorazio oso positiboa egin dute bigarren eskuko liburu azokaren antolatzailleek. Honako datuak helarazi dizkigute zenbakitan: 250 bat liburu saldu dituzte eta 380 euro lortu. Horrez gainera, 500 bat liburu dituzte, Kolonbiara bidaltzeko.

Oso pozik daude Aramaixo Tropicaleko Gazte Asanbladakoak bigarren eskuko liburu azokaren emaitzarekin. Liburu asko saldu dituzte: 250, entziklopedia bat barne; hala, diru dezente lortu dute: 380 euro (Angolara eramateko). Uste baino gehiago, antolatzaille-tako baten, Alex Aginagaldere hitzetan. Halaber, kontaktu digu nobelak baino entseguak saldu zituztela gehiago, baina batez ere, sukaldeko liburuak, etxeko erremedioen gainekoak, umeendakoak eta liburu zaharrak saldu zituztela. Esaterako, 1930eko liburuak ere bazirela esan digu.

BESTELAKO BITXIKERIAK

Kontatu digu, baita ere, liburu bitxiez gain, liburuen barruan dokumentu bitxiak ere agertu zaizkiela; esaterako, testamentu bat,

1978ko txartel bat (Seat 600 modeloko automobil bat zozketatzen) edo antzinako loteria txartel bat.

KOLONBIARA ETA GASTEIZERA

Bestalde, saldu ez zituzten liburuen artean, 500 bat, espainierazkoak guztiak, Kolonbiara bidali nahi dituzte gazteek. Orain, Udalarik laguntza eskatuko diotela esan digute, Diputazioaren bitartez liburuak Kolonbiara zelan bidali erabakitzeke. Saldu ez dituzten euskarazko liburuak, berriz, Gasteizko umezurtzegi batera bidaltzea aztertzen dabilta.

Azokan ibili zen herritar kopuruari dagokionez, aditza eman digute asko ibili zela, batez ere, 13:00etatik aurrera.

Gauzak horrela, eta bestelako ustekaberik ezean, datorren urtean, azoka berriro antolatzeko asmoa dutela esan digute.

GAZTEEN PARTETIK: ESKERRIK ASKO

Bukatzeke, gazteek eskerrak eman nahi dizkiete aramaio-arrak, liburuak ematearren eta azokari egin dioten harrerarengatik. Udalarik eta liburutegiko arduradunari (Olgari) ere eskertu nahi diete egin duten guztia. Horrez gainera, sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu nahi dute.

Aramaioko Udalak egindako zuzenketa

U.M.

Joan den astean, udal likidazioaren gaineko informazioa eman genuen. Baina badirudi informazio hori ez zela guztiz zuzena eta gaizki-ulertuak sor ditzakeela. Hori dela-eta, Udalak zuzenketa egin du eta informazio zehatza helarazi digu, zuei jakinarazteko.

Honakoa da Udalak artikuluari egin dion zuzenketa: "Ostiraleko *Goienkaria*-n, TXIRRITOLA-Aramaioko albisteen artean, zera azaldu zen: "2004ko likidazioaren arabera, Aramaioko Udalak 132.827,73 euroko superabita lortu du 2004ko ikasturte politikoan (...) soberakin positiboa izan du".

DIRU-KUTXAK EZ DIRA LODITU

Hau irakurrita, badirudi Aramaioko Udalak 2004ko ekitaldian 132.827,73 euroko etekina izan duela, Udaleko diru-kutxak loditu egin direla, alegia, eta hau ez da horrela.

Aramaioko Udalak 2004ko ekitaldian Gastu Orokorretarako Diruzaintza-gaineratikoa positiboa izan du, eta ez superabita (etekinak); bi gauza guz-

Udalak gaineratikoa positiboa izan du, eta ez superabita (etekinak); guztiz desberdinak dira

tiz desberdinak dira. Hori horrela denean, Gastu Orokorretarako Diruzaintza-gaineratikoa positiboa denean, hau baliabide bat izango da ondorengo ekitaldiko aurrekontuen kreditu-aldakuntzen finantzaketarako.

GASTUAK ETA SARRERAK ZAINDU

Bestalde, artikuluan azaltzen da "aurtengo soberakin positiboak erakusten du Udalak asko zaindu duela 2004an gastuen atala".

Hori ez da zuzena. Gastu Orokorretarako Diruzaintza-gaineratikoa kalkulatzeko orduan ez dira gastuak bakarrik kontuan hartzen, diru sarrerak ere (egon direnak eta egongo direnak), besteak beste, kontuan hartzen dira".

Gure aldetik, barkatu gaizki esanak.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a / 4. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ELKARRIZKETA

AITOR MADRID/KZGUNeko ARDURADUNA

“Herriko taldeak animatu gura ditut, sarean euren txokoa izan dezaten”

XABIER URTZELAI

Gatzagako KZgunean hamabostero egiten dituzte ikastaroak, eta maiatzaren 9an eta 23an izango dira hurrengoak. Aitor Madridek emango ditu ikastaroak; Gatzagakoaz gain, beste bederatzita herritako KZguneak ere kudeatzen ditu

Maiatzeko bi ikastaroak News eta Itsasoan murgil zaitez izenekoak izango dira.

Itsasoan murgil zaitez ikastaroa oinarritzkoa da, Interneten nabigatzen ikasteko. Bilatzaileak nola erabili, posta elektronikoa, webguneak... News, aldiz, posta elektronikoz kudeatzen den zerbitzua da. Foro batzuetan jendeak iragarkiak jartzen ditu. Gero, posta elektronikoz bidez jaso ditzaitegun iragarki horiek, eta baita gureak ipini ere. Gaiaren arabera horrelako hainbat eta hainbat foro daude. Zerbitzu hori erabilizten ikasiko dugu.


Eta, ordenagailua zer den ere ez dakienak, zer?

Horiek ere beldur barik etor daitezela, egingo dugu eta zer bait. Kontuan hartu ikastaro horiek ez direla moldatu ezin daitezkeenak. Azkenean, beharren arabera gauzak beste modu batera egin ditzaitegun. Ordenagailua inoiz ukitu ez duenak ere badu ikasteko aukera. Ez dezala beldurrik izan, ordenagailuek ez dute haginka egiten, eta karranparik ere ez dute ematen.

Interneti dagokionez, Leintz Gatzaga “komunikatuta” dagoela esango zenuke?

Bistan da ez dituztela hiriek edo herri handiek dituzten erraztasunak, baina beti daude alternatibak. Zuntz optikoa sartzen ez badute, WI-FI sistemarekin egin daiteke aurrera. Baina esango nuke herri txikiak Internet esku-rago izan beharko luketela.

Leintz Gatzaga berba Google bilatzailean sartuz gero, 4.500 helbide baino gehiago azaltzen dira.



“Interneti dagokionez, herri txikiak komunikatuago egon beharko lukete”

Bai. Interneten informazio asko dago, eta ikasi egin behar da informazio hori aukeratzeko. Egunkarietan ere informazio asko egoten da, eta dena ez dugu irakurtzen, aukeraketa egiten dugu.

KZguneko zerbitzuetako bat da herriko taldeek euren txokoa izan dezaketela sarean.

Hala da bai, eta herriko taldeak animatu gura ditut euren kontuen gaineko webgunea egitera. KZgunean aukera dute horretarako: dituzten oharra, egitasmoak, bidaiak, argazkiak... Gura dutena sar dezakete.

“Ikastaro jakin batzuk aurreikusita baditugu ere, guztiak dira moldagarriak”

Informazioaren teknologien erabileraren gaineko egiaztagiria ere ematen duzue.

Bai, curriculumak osatzeko aproposa dena. Baina Leintz Gatzagan ez ditugu azterketa horiek egiten. Horretarako, gatzagarrak KZgune handiago batera etorri beharko dira, Aretxabalera edo Arrasatera, adibidez.

LABUR

Zaborraren zerga orain, eta uraren zerga uztaila eta iraila artean ordaindu beharko da

Dagoeneko onartu dituzte 2005eko lehen hiruhilekoaren gaineko zergak. Zaborren gaineko zergak ordaintzeko borondatezko epea hilaren 15ean hasi zen, eta datorren maiatzaren 31 izango da zerga hori ordaintzeko azken eguna. Uraren eta estolden zerbitzuaren gaineko zerga ordaintzeko epea ere ezarri dute. Uztailaren 12an irekiko dute zerga hori ordaintzeko epea, eta irailaren 11 izango da horretarako azken eguna. Jakin, epe horiek errespetatzen ez dituzten herritarrek errekarria eta errekarriari dagozkion interesak ordaindu beharko dituztela.

Herriko jaietan zer egin erabakitzeko batzarra

X.U.

Oraindik eguna zehazteke badago ere, herriko kulturazinetan Jon Sasiainek batzarra egin gura du herriko taldeekin Gatzagako jaietan zer antolatu gura duten jakiteko. Batzar hori datorren astean egin gura du.


Leintz Gatzagako jaiak irailaren 8an badira ere, fundamentuzko zerbaitekin egin gura bada askoz ere lehenago hasi behar da lanean. Eta, Udalean dagoeneko hasi dira horretan. Horretarako, ezertan hasi aurretik, Jon Sasiainek aurreratutako digu datorren astean egin gura duela herritarrekin eta herriko taldeekin batzarra, aurtengo jaietan zer antolatu dezaketen erabakitzeko, edo ideia berriak hartzen hasteko. Eguna zehaztu barik dago, baina segu-

ru asko martitzenean edo eguaztenean egingo dute batzarra. Horretarako, bera arduratuko da herriko taldeekin kontaktuan jartzen.

Horrenbestez, batzarra joan aurretik, herritarrek asteburua izango duzue herriko jaietan zer antolatu gura duzuen erabakitzen joateko, jakinda berritasun guztiak izango direla ongi etorriak.

HOBE JAIK EGUNEZ GIROTZEK

Jon Sasiainek esan digu egunez egin daitezkeen ekintzak bultzatu gura dituztela, gauean gero eta jende gutxiago joaten delako Gatzagako jaietara: “Azken baten, hona etortzeko automobila behar da, eta jaietan alkohola tartean egoten denez, jendeak gurago izaten du autoa ez hartu. Horregatik, egunez girotu behar ditugu jaiak”.



Gaztetxoendako ipinitako puzgarriak, pilotalekuaren parean.



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.
Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BITART

**Larraitz Ugarte
Maider Morras**

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21



Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza

- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak

- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

JATETXE GIDA

On egin!



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETIA
943 79 24 58

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe jatetxea

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita